



Sagastilerri

URRUZUÑO literatur lehiaketa



2002



POESIA

ODEI ARREGI

MIREN RUBIO

MAITE URIARTE

OIHANE JAKA

HAIZEA CAMINOS

OIER ZURUTUZA

GOIATZ BILBAO

MIREN BERAMENDI

LEIRE JAUREGI

OLATZ TELLETXEA

irakaskuntza ertainetako


URRUZUNO

literatur lehiaketa 2002

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Urruzuno Literatur Lehiaketa (17.a. 2002)

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2002: lan sarituen bilduma / prestatzaileak, Blanka Castaño ... [et al.]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002 or.; cm. — (Sagastiberri)

ISBN 84-457-1841-X

1. Euskal literatura-XX. mendea - Lehiaketak. I. Castaño, Blanka. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua 891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1.a, 2002ko abuztua
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.ej-gv.net
Prestatzaileak:	Blanka Castaño, Iñaki Iturain, Joxe Miel Odriozola eta Iñaki Artola
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Flash Composition, S.L. Alda. Rekalde - 48009 Bilbo
Inprimategia:	Flash Impresión, S.L. Doctor Entrecanales, n.º 8 - 1º - 48002 Bilbao
ISBN:	84-457-1841-X
Lege-gordailua:	BI-1714-02

AURKIBIDEA

Hitzaurrea		7
Idazlearen parabola	<i>Jose Mari Satrustegi</i>	11
Prosa: A maila		
Nocte	<i>Mikel Uranga Barro</i>	19
Merituak	<i>Kati Olaizola Gabirondo</i>	29
Galdutako denboren zertzeladak ..	<i>Estibaliz Lizaso Lopetegi</i>	39
Ipar izarra	<i>Goiatz Labandibar Arbelaitz</i> ...	49
Bizitza gogorra da	<i>Jon Rementeria Larruzea</i>	57
Prosa: B maila		
Urruneko oroitzapenak	<i>Ander Timoteo Delgado</i>	67
Ez dut ezer ulertzen	<i>Antton Alberdi Estibaritz</i>	75
Zuk uste ametsak bete daitezkeela?	<i>Ane Arregi Lopez</i>	83
Oroitzapenen garra	<i>Jokin Benavides Otsoa-Aizpurua</i>	91
Ilberri gauetan... ..	<i>Maite Mendizabal Alberdi</i>	97
Poesia: A maila		
Sagar bihotzak sagar begietan ...	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	107
Azazkalak jan nitueneko bost hondar aleak	<i>Miren Rubio Iturria</i>	113

Ihesean	<i>Maitte Uriarte Gil</i>	121
Itsasoratutako malkoak. Hitz izoztua.	<i>Oihane Jaka Irizar</i>	127
Gazitasun gazi-gozoa	<i>Haizea Caminos Ikazuriaga</i> ..	135

Poesia: B maila

Gerra beti da oinaze	<i>Oier Zurutuza Arin</i>	143
Bihar arte, laztana	<i>Goiatz Bilbao Bueno</i>	149
Mundua	<i>Miren Beramendi Brit</i>	155
Ez naiz ezer	<i>Leire Jauregi Aizpurua</i>	161
Zer egin ez dakiela	<i>Olatz Telletxea Agirre</i>	167
Urruzunotarrak 1986-2002		173

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamazazpi urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Hirurehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Urte hauetan guztietan gaurko ale honen sarreragile moduan agertzen den Jose Mari Satrustegi euskaltzaina izan dugu bide-lagun. Epaimahaitik gure idazle ezagunenak pasa dira dagoeneko eta, aldian-aldian, berau berritzen saiatu gara. Aldiz, Jose Mari bertan mantendu dugu hasitako bide baten egonkortasunaren eta segidaren seinale. Gure eskerrik zintzoenak adierazi nahi dizkiogu urte hauetan eskaini digun aholkularitza eta lankidetzagatik. Eskerrik asko, Jose Mari!

Bestalde, aipatu nahi genuke Urruzunori hainbat “lehiakide” sortu zaizkiola azken urteotan. Han eta hemen sortu dira gazte hauen sorkuntza bultzatu nahian antolatutako lehiaketak. Zorionak arlo hau jorratzeko kemena era-

kutsi duzuen teknikari eta arduradunoi. Guztion artean zaindu eta babestu behar ditugu kimu berriok baina, agian zaintzea komeni zaigu bakoitzak zein arotan eskaini behar dion bultzada.

Urtero bezala goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Jose Mari Satrustegi
Manu Lopez Gaseni
M^a Jose Olaziregi
Arantxa Urretabizkaia
Josu Lartategi

Parte-hartzeari dagokionez, 2002. urte honetan 417 lan jaso dira: A mailan 149 prosan eta 46 poesian; B mailan, berriz, 195 hitz lauz eta 28 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailatan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sari guztiak eman dira lau atal horietan. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia (Gales).
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 250 €.

- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.

Liburua eskola guztietara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Andoaingo Aita M. Larramendi ikastetxeari eta Gernikako institutuari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2002ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaiari kide izan ditugunoi.

Besterik gabe has zaitez, irakurle, zure adinekoek freskotasunez idatzitakoak irakurtzen. Sentimendu gazi-gozoak esnaraziko dizkizu dudarik gabe, baina ez al da horrelakoa adin hori? Halere, dastatu ezazu gogoz zure oraingo egoera. Eta zuri, aita edo ama, semearen edo alabaren mesanotxean liburua aurkitu baduzu, egiozu hagin-ka, ez zaizu damutuko. Bertan sentimenduz betetako gazetxoak aurkituko dituzu, aita-amei edo lagunei esaten ausartzen ez direnak, luma lagun, izkribuan igorri dituztenak. Maitagarriak eta berekoiak, alaiak eta tristeak, gozoak eta mikatzak..., horrelakoak baitira. Gure gazteak ezagutzeko, entzuteko, ulertzeko eta, azken batean, hobeto mai-

tatzeko lagungarri gertatuko zaizu liburua. Zeure semea edo alaba izan daiteke idazle horietako bakoitza. Guztiok ere, berauei begira, geure jokaeraz ere zer pentsa atera beharko genuke. Beraiek baitira geu sortzen ari garen belaunaldi berria eta ondorena.

Euskara Zerbitzua

IDAZLEAREN PARABOLA

Jose Mari Satrustegi

Liburuetan ez dagoen ikasgai xumea entzun nion behin figura argaleko aitona nekatu bati, irriño goxoarekin esaten: Hiru lagun joan ziren elkarrekin basamortura, ura, sua eta konfiantza. Egun askotako bide luzearen ondoren argi guztien mozkorraldiak batean harrapatu zizkien begiak eta ezin ziren ibili. Hare gorriaren gainean auspez etzinda etorkizun beltzari buruz mintzatu ziren orduan:

– *Ni galtzen banaiz norbaitek aurkituko nau, esan zuen urak; ni nagoen tokian hezetasuna bada eta berez dator landarea.*

– *Ni galtzen banaiz kea nirekin doa eta noizbait aurkituko naute, zioen suak.*

– *Zorionekoak zuek, xuxurlatu zuen beretzat konfiantzak. Ni galtzen banaiz ez nau inork ikusiko. Konfiantza behin galtzen da betiko.*

Aitona isiltzean hausnarkizun gazi-gezaren hegaletan joan ziren hitzak.

Idazlearen erronka ausarta da; hitzaren arnasa koloretatuarekin, barneko argi printzei inguruko basamortu lehorrean bizia ematea alegia.

Sormena da gaitasunaren berezko iturburu sotila. Mendiko ur gardenen xirripa amultsua edo itsasoko uhin bular-tuen oldar eroa izan daiteke emankortasunari darion isuria; hotza edo beroa, argia edo iluna, gaiari dagokion neurrian.

Zaletasuna, hurrena, bihotzaren taupada irakina egosten mantentzen duen suko labe gorria izan ohi da gogoarentzat.

Konfiantza, hari finen arimako sare babeslea, amets gauzatuen ingudean norberak landutako nortasunaren aingura da.

Basamortu gogorreko hiru bidelagunon laguntzaz idatz-erdiminen kinka ez da larria, ase ezinezko gosearen jaki pizgarria baizik.

Urruzunotarrak

Hamazazpi urteko ibilaldi arrakastatsua burutu du aurtan «Urruzuno literatur lehiaketak». 1985-86 ikasturtean abiatutako euskal idazle gazteen deialdia adinez heldutasunaren mugara iritsi da eta zeresanik badu guztiongan.

Euskal Erkidegoko biztanlegoa mugatua izanik eta urtean urteko jaiotzen kopurua urria, ikastetxeetako galbaha gainditu ondoren jasotako 7.668 lanek irakurketa baikorra eskaintzen dute ikasleen harrera aldetik. Urtean 451 laneko multzoa, batez beste. Horrek ez du esan nahi urtero maila hori mantendu denik; bigarren urteko 301 izkribuak, adibidez, ez dira inondik ere 1991-92 ikastaroko 627ko ekarpenen erdira hurbiltzen. Datu xehen zergatia alde batera utzita, gora-behera kontua, orohar, ez da esanguratsua gertatu. Lehiaketaren lehen zortzi urteetan batez besteko emaitza (450'5) eta azken zortzietan jasotakoa (437'75) parekatuz ez da alde handirik sumatzen, eta erdibide orokorrera hurbiltzen dira biak. Lehiaketak lortutako erantzuna oreka egonkorrean mantendu dela, esan nahi du horrek; ez duela alegia hamazazpi urteotan gazteengan erakartasunik galdu. Eta XXI. mendeko bi lehen emaitzei bagagozkio, 462 lan etorri ziren iaz eta 417 izan dira aurtengoak, kopuru batuaren mailan.

Zenbakien hizkuntza gordina emaitza materialen zama gorpuztua neurtzeko tresna egokia izan arren, lehiaketak partaideengan duen barne eragina azaltzeko ez da gai. Gazteen artean sortutako giroa, literaturgintzako interesa,

sarien zirrara eta idazle batzuen jarraipena dira ondore nagusia. Izan ere, Euskal Erkidegoko ikastetxe guztietara zabaldu ohi da urtero deialdia eta milaka dira euskaraz idazten ahalegindu diren gazteak. Nork daki orri zuri bakoitzaren aurrean herriz herri, etxez etxe, bizitutako ilusio freskoen berri? Hurbileko beste pertsona batzuen partaidetza barne, amets garden eta tentsio ezkutuen bultzadak jotzen ditu idazmakina eta ordenagailuen tekla antzuak.

Pentsamendu iheskorren mundu bakartian murgildurik bizitako orduak arin joan ohi dira irrikaren hegaldietan, eta ilusioz apaindutako ehunaz josten da zaletasunaren jantzia. Klaseko idazlan hautatuen multzoan sartu izanak berekin darama, bestalde, lagunen aurrean lortutako ohorea nortasunaren begiak irekitzen diren biziko egunsentian.

Sari gabeko ilusioen uhina erraldoia da, noski, baina itsas berunaren gainetik 252 urruzunotar gazteen izenak agertu dira idazle sarituen izartegi berrian.

Ez bezate bide zelaien basamortuan bokaziodunek berengan konfiantza gal.

Jose Mari Satrustegi
Arruazu, 2002-05-14

PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Nocte

Mikel Uranga Barro
Aita Manuel Larramendi ikastola
Andoain

Nire senera etortzen naiz berriro... Begiak zertxobait irekitzen ditut eta gorantz begiratzea otutzen zait, ilargirantz... Gaur gauean bete-betea dago... Benetan ederra... guztiz bete... Zeozer beroa sentitzen dut ahoan, ezin liteke... ez; berriro ez, mesedez... Begirada berriro jaisten dut eta beti aurkitu nahi ez dudana aurkitzen dut oraingoan ere: odolusten ari den beste gorpu bat. Oraindik bere oihuminak entzuteko gai naiz, nola zizakatzen duen eta nola eskappa egiten dioten oinaze malko batzuek. Zirkin egiten saiatzen da baina, jada, ez dauka inongo indarrik. Bere lepotik ateratzen den odol gorritzta eta beroaren errekatxoa jarraitzen dut begiekin, nola ailegatzen den etxeorratz honen hogeita hamabosgarren... ez, hogeita hamaseigarren pisua- ren erlaitzera, eta nola erortzen den ttanttaka behe-behean dagoen espaloiraino.

Gorpura bueltatzen dut nire arreta. Ilehoridun eta gorputz liraineko emakume gaztea da. Bere begiek irekita jarraitzen dute eta bere heriotzaren momentua grabatua dute erretinan, istripu baten ondoren gelditzen den erlojuaren antzera, non denbora izoztu egiten den eta minutuek eta segundoek betiko bukatzen duten beren mugimendu zirkularra. Barkamena eskatzen diot eta jaiki egiten naiz begiak izarretara zuzenduz, nire ahoan dudan odola garbitzen dudan bitartean, arropa guztiak zikintzen ari zaizkit eta tantekin.

Zer bihurtu naiz? Neure buruari galdera berbera egiten diot gauza bera gertatzen zaidan bakoitzean, zentzua berreskuratzen dudan bakoitzean, nire besoetan gizon, emakume eta batzuetan umeak ere aurkitzen ditudanean... Oka egiteko gogoia ematen dit gertatzen den bakoitzean eta ezin dut goragalea jasan. Beldurgarria da.

Azkeneko gainbegiratua ematen diot hilotzari, bere irribarre groteskoa ikustean atzera pauso bat ematen dut, post-mortem zoriontasun bat dirudi, nire existentzia bere amaiera tragikoa baino okerragoa dela esango balit bezala. Ezin dut gehiago jasan, hemendik alde egin behar dut lehenbailehen.

Mundua garaiera hauetatik ikusteak liluratu egiten nau, zero-harraskarrietatik, erlaitzetik erlaitzera, inongo loturarik gabe eta ordu hauetan paseatzen duten gizontxo gizarajo hauei begira. Beren buruaz hain seguru daudelarik, hain lokartuak, beren ezjakintasunean murgildurik, ganadua besterik ez direla jakin gabe. Gizakiak berau denaren arduratu hartu beharko luke, eta ezereza baino gutxiago direnez...

Buruko mina hasten ari zait... beti gertatzen zaidan seinale nahastezina da. Oinaze txiki batzuekin hasten da, gero egarri bihurtzen direnak, eta azkenik geldiezina egiten zaidan erresumin bateraino iristen da. Irudiak etortzen zaizkit gogora. Norbaitek etengabe ukitzen dituen iraganeko zuntzak, neure buruan momentuero entzunarazteko. Nire ama ikusten dut gela gris eta txikiaren izkina batean nire anaia-aren gorpuari eusten bi besoen laguntzaz; guztiz triskatuta dago, ezagutezina dago, baina ez, nire amak ez du negarrik egiten, ikarak malkoen pisuak baino indar handiagoa du... Bere bihotzaren taupada azeleratuen oihartzuna entzun daiteke gelaren paretetan burrunbaka. Nire aita ikusten dut labana bati eusten eta dardartsu alde batera eta bestera mugitzen, bere kopetatik jaisten den izerdia begietatik erortzen den negarrarekin nahasten zaio. Bat-batean esku batek zirkulu-erdi bat marrazten du airean eta nire aitaren bularretik amaren aurpegia zikintzen duen odol txorrotada luze bat ateratzen da gela guztian bere arrastoa eta usain mingotsa uzten duelarik... Soinu lehor batean erortzen da

bere gorpu inerteia, zuhaitz batetik erremediorik gabe jaus-
ten den fruitu ustelaren antzera. Gelan ez da entzuten oi-
hrik, ez dago airea moztu dezakeen ezer, hilotzen itxura
duten itzalak soilik entzuten dira beren kantu errepikako-
rrekin.

Odolez zikindutako esku hiltzailea nire begietara hur-
biltzen da poliki-poliki... eta erremediorik gabe kontura-
tzen naiz neure eskua dela...

Sena berriro ere berreskuratzen dut. Zergatik? Gauero-
ko galdera erretorikoa da.

Orain espaloietatik nabil pauso mantsoan, begirada
guztiak dastatuz, beren bizitzen autista hauekin gurutzatuz,
edonor izan liteke nire hurrengo biktima. Begiekin abisu-
pean jartzen saiatzen naiz, mehatxu egingo banie bezala.
Kafetegi batetik pasatzerakoan inkonszienteki burua esku-
birantz biratzen dut eta begiek automatikoki barrura enfo-
katzen dute kamera baten zoom-aren antzera, egunero
egingo banu bezala, pentsatu barik.

Paretak zuriak ditu eta kafe usaina ni nagoen lekuraino
iristen da inongo arazorik gabe, ordu hauetan oraindik
nahiko jende egoten da barruan. Ate ondoan familia
“zoriontsuaren” kopia perfektua dago: aita eta ama ondo
jantziak beren semetxoei txokolate beroa erosten, denak
barrez... Eta atzealdean bikote bat ere ikus dezaket, muxu
haragikoi bat elkarri ematen, begiradei inongo garrantzirik
eman gabe, beren burbuila propioan amesten. Nazka ema-
ten didate. Ez dakit zergatik nagoen oraindik negarrez.

Oinez ibiltzeko gogoia desagertu egin zait bat-batean.
Bai, horixe da, beraien gorrotoaren emaitza baino ez naiz.
Begiak ixten ditut, eta ikusteko gai naizen gauza bakarra
heriotza eta sufrimendua da.

Honekin amaitu behar dut.

Ezin dut.

Koldarra naiz.

Oinez jarraitzen dut.

Hiri honetako leihoen argiak kontatzea zeruko izarrak kontatzen jartzearen pare egongo litzateke, dudarik gabe. Hala ere, pertsonak ederrak direla esan arren, denak berdinak direla esan behar da, leihoetatik ateratzen diren argiak bezala.

Baina argi batek nire atentzioa deitzen du eta nire zentzuak erne jartzen ditu. Kontu handiagoz begiratzen dut eta "Argia" dela konturatzen naiz. Alboetara begiratzen dut kontu handiz eta inor ez pasa arte geratzen naiz geldirik. Ez nago ziur minutu bat edo ordu bat iragan den baina berdin-berdin pasako zitzaidakeen.

Bakarrik nagoela ziurtatzean jauzi batez lehenengo solairuko balkoi batean sartu eta handik laugarren pisuko leiho horretara goratzen naiz. Burua poliki gerturatzen dut leihora eta alboetara begiratzen hasten naiz. Hortxe dago, beti bezala. Bere gelan, orduan zuen ohe berarekin, eta orduan zuen altzairu eta kolore berberekin. Zenbat denbora iragan ote da hemen egon nintzen azken alditik? Niri ere erantzuna guztiz arrotza egiten zait.

Ezin izan dut burutik kendu denbora honetan guztian, hori gertatu zenetik... Ez ditut bere laztanak sentitu hori gertatu zenetik... burua astintzen dut. Komunera sartu da eta, ez dakit zergatik, leihoa irekitzen dut inongo soinurik egin gabe eta, ez dakit zergatik, baina barrura sartzen naiz sugearen zalutasunarekin. Behin besarkatu ginen ohean etzaten naiz, bere kamisetetako bat hartzen dut eta usaindu egiten dut bere

lurrinean zorabiatuz. Altxa egiten naiz eta bere idatz mahaira hurbiltzen naiz. Bere gauzak klasifikatzen saiatzen naiz ziztu bizian, eta halako batean begirada altxatzea otutzen zait... Nire begiek ispiluarekin topo egin dutenean beldurra sentitu dut eta barruan nuen oinaze guztia puntu txikitxo batean bildu da garrasiaren forma hartuz. Konturatzerako beranduegi zen eta, entzun ote nauen beldurrez, armairu barrura sartu naiz segundo-erdi batean.

Pausoak entzuten ditut. Dirudienez ez da ezertaz konturatu. Armairuaren atea erdi irekita uzten dut eta zirrikitutik begiraten saiatzen naiz. Arropaz aldatzen ari dela dirudi. Kamiseta kentzen hasi da, oso gogokoa nuen marrazki gorridun kamiseta beltz hura. Buruko mina areagotzen ari dela nabaritzen dut... eta ahots batek durundi egiten dit belarri barnean: Inoiz! Inoiz zer? Zer esan nahi ote du? Nondik datorren ere ez dakit... Indartsua izan behar dut... lasaitasuna berreskuratu behar dut, kosta ahala kosta... ezin nau hemen aurkitu.

Bizkarrez dago eta bularretakoa askatzen ari da... gogoratzen ditut bere bular zuriak, begiarentzako, baina baita ere ukimenarentzako, benetan atseginak ziren. Bular horiek berriro muxukatzeagatik hilko nuke, bai jauna, eta nola hil ere! Dena lausotua ikusten hasi naiz, oinazeak akabatzen nago, eta belarrietan dudak kakofonia madarikatu honek garrasika eta oihuka hasteko gogoak besterik ez dit ematen.

Egarria... egarri handia. Jada ez naiz ezertxo ere ikusteko gai. Buruko irudiak soilik ikusten ditut. Belauniko errukia eskatzen ari den nire ama ikusten dut. Esku bakar batez airean jasotzen dut eta bestea bere aurpegirantz zuzentzen dut abiadura beldurgarri batekin... ez... nahikoa da, mesedez... ez dut berriro ikusi nahi, mesedez. Berriro ere bere

odola nabaritzen dut nire aurpegia zipriztinduz, egunero, egunero, egunero... eta egunero ikusten dut irudi berbera angelu guztietatik errepikatuta kamara geldoan. Eta gero isiltasuna, ekaitzaren ondoren bere ezereztasun beldurgarrian naraman isiltasunak bisitatzen nau. Nire gorputza lasaitzen den momentu bakarra dela esango nuke nik. Bakartasuna.

Begiak irekitzen ditut berriro ere, oraindik gandutsu ikusten dut guztia. Gorantz begiratzen dut eta kolore zuri-dun sabai bat sumatzen dut. Erraz berrezagutu dut, oraindik bere gelan nago. Zerbait beroa nabaritzen dut nire ahoan... eta zeozeri eusten ari naiz nire besoen artean.

Begirada berriro jaisten dut beldurrez beteta eta kosta egiten zait, soka ikusezin batek nire lepoa lotuta izango balu eta etengabe goraka bultzatuko banindu bezala. Nire begien bidean bat-batean beste begi batzuk gurutzatu dira eta bereak direla konturatu naiz. Negarrez ari dira, biak, eta guztiz irekiak daude, ez dute kliskatzen. Beraien berdetasunean galtzen naiz orain dela denbora asko galtzen nintzen bezala. Bere berdetasunean itotzen nintzen, hotzikara sentitzen nuen bitartean.

Bere gerriari heltzen ari naiz bi eskuez, baina bere eskuak ez daude nireetan. Eta konturatu egiten naiz... muxukatzen ari garela! Nola da posible?

Zerbait arraroa sentitzen dut bularrean, bihotzean zehazki. Zeozer hotza. Gehiago jaisten dut begirada eta labana bat dela egiaztatzen dut, nire bularrean sarturik dagoen labana bat. Ireki duen zulotik odol beroa etengabe ateratzen da bion arropa zikinduz, lurrean putzu bat sortuz. Berau ari da labanari eusten bere esku dardartiez.

Aienatzen eta lurrera hauts moduan erortzen ari naizela sentitzen dut.

Nire gorputza desegiten ari da.

Eta badakit bera konturatu dela nor naizen. Ez dakit beldurrak ala tristurak eraginda negarrez ari den.

Berdin zait.

Eskerrik asko.

Nire gorputzetik geroz eta gutxiago geratzen ari da. Eskerrik asko honekin guztiarekin amaitzeagatik.

Eskerrik asko oroitzapenen zuntzak mozteagatik eta nire egarria apaltzeagatik.

Nire gorputza zenaren hauts gorrizta bat besterik ez da geratzen bere ezpainetan. Negarrez ari den bitartean beldur-rarengatik mugitu ezinik dago, bere gela erdian oparirik preziatuena niri eman ondoren. Inork ematen jakin ez zuen oparia, ezta neuk ere: ahanztura.

Merituak

Kati Olaizola Gabirondo
Xabier Lizardi institutua
Zarautz

Gorritz tindaturik dago karrika iluna. Harlauza grisek tokia utzi diote odolaren kolore arreari Tanta lodiak nabari daitezke oraindik, arratseko euri meharrak ezabatzea lortu ez duen arrasto goibelak. Ondoko zebrabideko semaforoa ere apurturik dago: udaletxeko langileek lan asko izan omen dute egun hauetan. Hori erantzun didate behintzat galde egitera joan naizenean, ez dutela astirik izan, badirudi hiru hilabetetan zeharo lanpeturik egon direla. Dena dela, ez dit gehiegirik axola, jadanik ohitu bainaiz. Nire bizitzako zati izatera pasatu baitira tanta gorri horiek, asfaltoaren gainean pilaturik. Koadro surrealista bateko pintura zipriztinak dirudite, pintzel lodi batez margotuak izan direnak.

Baina zein bestelakoa den orban gorri horien esanahia, neroni ere ulertzera justu-justu iristen naizena; hiru hilabete pasa eta gero oraindik... betiko gogoan.

Alboan ditudan bi mastodonte bihozgabe hauek arduratzen dira nire kulpa egunero ureztatzeaz, ihartu ez dadin eta denboran iraun dezan. Hileta egunaz geroztik urrutiratzen ez zaizkidan bi hauek.

Gutxienez baziren hiru urte hileta batera azaltzen ez nintzela, baina orduko hartan lehen ilaran jartzea egokitu zitzaidan, negarraren negarrez ehunka musuzapi busti zituztenen ondoan. Hantxe zenituen gurasoak, eta zeu ezagutu gabe, komenientziazko malko ugari eta esaldi sentimental pila bota zituztenak ere, «Hain ausarta genuen». Nik apenas isuri nuen malko lehor bat, tristurak berak baino gehiago, obretan zegoen elizako hauts harrotuak lapurturiko malko bat. Psikologoak ondoren argitzen saiatu ziren bezala, nik egun hartan oraindik pairatzen nuen shocka zela medio (inoiz ez al zaizu dirua alferrik galtzea

iruditu sasi orojakile horien dibanetan etzatea?, ez al da tentelkeria psikologo horiek Freudengan duten fedea?).

Ez zieten, ez, antz handirik hartu Jaungoikoaren aurrean, eta momentu hartan, buruan izan nituen pentsamenduei! Haiei ere elizako hautsak burua nahastu zien nonbait.

Izan ere, zu pertsonaia ospetsua zinela eta, berriztatzen ari ziren eliza ireki zizuten espreski, handiena eta ederrena zela aitzakiatan hartuta. Zer gutxiago merezi zenuen, bada, zuk, alu horrek?

Herriko handiena izanik ere, ederki bete zenuen, alajaina. Ez zen, ez, jende askorik falta izan Burgosko katedrala betetzeko. (Izan ere, nireak lako hamarnaka “armariok” metro karratu asko okupatzen dituzte eta). Eta jakina, komunikabideetako kamera eta mikrofonoak ere nonbait sartu behar dira!

Ez zen, ez, giro izan, elizan egun hartan. Han zegoen jendilaje elegante hark guztiak bere ipurditxo preziatuak plastikozko estalkien gainean jarri behar izan zituen. Apai-za ere ez zebilen gustura kartoiz estalitako aldarean. Baina zuk, beti bezala, jendearen arreta zeureganatu behar zenuen azken egunean ere, nola ez!

Horixe izan zen nire galbidea, ezagutu zintudan egunean bertan ere, horrexegatik hurbildu nintzen zuregana; denetan xelebreena eta berritsuena zinelako. Patu onekoa ni!

Ez nien, ez, kasu handirik egin amonak esandakoei, baina hobe nuen, bai.

Izan ere, garai hartarako inguruan zure izena ezaguna egiten ari zen, herrian denek zuten zure berri.

Bat baino gehiago saiatu zen ni berriz ere zentzunean sarrarazten, baina antzarak ferratzera bidaltzen nituen nik, ez zutela ideiarik ere zu nolakoa zinen eta hobe zutela isilik egotea, eta ezin zintuztela zeure ideologiagatik bakarrik epaitu.

Eta batek baino gehiagok utzi zion nirekin hitz egiteari, zeurekin nuen harremanagatik. Hipokrita hutsak iruditzen zitzaizkidan garai hartan, hitza zuzentzea ere merezi ez zutenak, baina azkenean denborak arrazoi eman die.

Familiarekin ere apenas gorde nuen harremanik. Bereak eta bi entzun behar izan zituzten niregatik, eta nekatu egin ziren. Gizalegezko harremanari eutsi zioten, azken batean odol berdinak lotzen baikintuen, baina hortik aurrera gutxi. Amonak soilik jarraitu zuen niri bisita egiten, baina zu etxean ez zinela ziurtatzen zuen lehenik, zure albotik lehenbailehen alde egin nezan esatera etortzen baitzen. Nik garai hartan koittadu moduan ikusten nuen gure amona, edadearen ajeak jota. Ni bai koittadua!

Kontua da, etxean zegoen giroa ikusita, alde egin nuela. Zeuk etxea bazenuen eta haraxe, zeurekin denbora gehiago eman bainezakeen horrela. Eta erabateko lotura izan zen hura; zugana tinko lotu ninduen burnizko kataia astuna.

Pare bat hilabete pasata ezkondu ginen, ez baitzen “jau-naren” gustukoa gu etxe berean ezkondu barik bizitzea.

Ni oraindik ere ziur naiz amonak behartuta etorri zirela gurasoak ezkontzara, nahiz eta hark tinko zirauen ni ez desposatzeko ahaleaginean, (orain ulertzen dut zein gogorra behar zuen ezkontza hark senarra gerran euzko gudarostean ibilitako abertzale batentzat).

Amonagatik izan ez balitz, ez ziratekeen gurasoak ere azalduko (neba-arrebek ez baitzuten ez tinta ez listu askorik erabili aitzakiaren bat asmatzeko garaian).

NIRE BIZITZAKO EGUNIK ZORIONTSUENA

Halaxe zioen ezkontza gonbitak. Eta ez dizuet gezurrik esango, halaxe izan zen (orduan behintzat). Nire burua horrelaxe sentitzen nuen nik.

Pertsona bat ezagutzeko bizitza oso bat behar omen da, hala diote behintzat. Pelikula bat txarra denean bezala, ordea, nahikoa zaigu kredituak ikustea, merezi duen edo ez erabakitzeko. Bada, nik ere urte pare bat nahikoa izan nuen zeure barnean ezkututzen zen benetako izakia ezagutzeko ere; ederki ezagutu gainera.

Inoiz ez ahazteko moduan grabatu zitzaidan memorian, harri gainean zizelkaturik bezala. Inoiz ez ahazteko moduan esan zenizkidanak.

Etxean lorik egin ez zenuen egun hartan hasi zen hari-muturra mataza korapilatu eta amaigabe bihurtzen. Kongresuko bilera zenuela eta dei egin zenidan, ez zinela bi egun barru arte etxean izango. Oraingoan irabazteko aukera ugari zenutela, eta ondo pentsatutako estrategia konplexua martxan jarri behar zenutela. Gau hartan ziur naiz haultesleengan gehiago pentsatu zenuela nigan baino, nahiz eta hari telefonikoak horrela jakinarazi zidan: nirekin amets egingo zenuela. Huraxe izan zenuen lehen akatsa.

Haren ondotik hasi zen kotxe ofizialen eta diseinuzko jantzien dantza, lau tenedore desberdineko mahaiak eta beren luxuzko txalet adosatua azpian bi BMW gordetzen zituzten mahaikideekin solasak. Eta, nola ez, bi hau-

rrak; bata Nigeriakoa eta bestea txinatarra. Geuk haurrik ezin izan genuela eta, huraxe zen aukerarik onena, eta irudi publikoarentzat egokiena. Baina ez zenuen, ez, pixoihal askorik aldatu, horretarako genituen bi neskame etxean. Nik oraindik zalantzak ditut bi haur haiek maite izan zenituen edo ez, ez dut uste zeuregandik maitasun gehiegirik jaso zutenik. Kamerak aurrean ziren guztietan besarkatu eta musu ematen zenien, baina erreportariak bira eman orduko ezpainak zetazko mukizapiaz garbitzen zenituen (badaezpada, ezin baitzitekeen jakin haur haiek zetozen lekuetan zein gaixotasun arraro izango ziren, eta ez zenuen kutsatu nahi).

Garai hartarako, ordea, nazkaturik nengoen zutaz. Bai, agian hitz gogorra izango da alargun batek bere senarrari esateko, baina egun hits haietan sentitzen nuena horixe zen, imajina publikoarentzat soilik bizi zinela, eta ni ere zure antzerki hartako txotxongiloa nintzela soilik, neure hari eta guzti, zeure gustura mugitu ahal izateko.

Egun luze haietako batean izan zen lehenengo eraso. Gure kristalezko dorrera sartzea lortu zuen koktel batek, mila zatitan apurtu beira, eta zure gaztetako argazki albumak erre zituen. Hurrengo egunean hantxe agertu zinen egunkari guztietako lehen orrian, zeure irribarrerik goibelenaz: «Eskerrak haurrei ez zaien ezer gertatu». Hipokrita ederra zeunden egina. Finean, ez dakit atsekaberik sentitu zenuen ere, izan ere, trukean seguruagoa zen etxe handiago batera eramanez baitezabaz.

Eraso haren ondoren talde terroristen ikuspuntuan zeundela eta, izugarriko segurtasun neurriak jarri zizkizu(gu)ten. Egun guztia pasatzen genuen geure pausoak neurtzen, nora eta nondik joan behar genuen, eta behar-

beharrezkoa zenean (mitin, prentsaurreko...) soilik mugi gintezkeen.

Haietako egun batean ere egin nizun nire eskaria, ezkondata generamatzan hiru urteetan egin nizun aurrenekoa: dibortzioa.

Barre algaraka erantzun zenidan, ia ito zinelarik. «Andrea, horrelakorik okurritzea ere, gezurra dirudi hain tuntuna izatea. Ez al duzu, bada, hiru urte hauetan nahikoa ikasi?» Nahi banuen beste logela batera joan nintekeela, baina hura etxe hartatik ez zela aterako, eta jendaurrean ...ren emaztea izaten jarraituko nuela, heriotzak banatu arte. Heriotzaz gaindiko maitasunak bazeudela erantzun nizun nik, baina hura ez zela, ez, gure kasua. Eta Herioren bisita lasterra ez bazen, neronek alde egingo nuela. Ordura arteko txantxa eta irribarreak amaitu ziren, besotik gogor oratu eta ozen hitz egin zenidan, zeure onetik zeharo aterata. «Txantxetan ere ez ezan hori esan, txolin horrek».

Hortxe amaitu zen geratzen zitzaidan maitasun apurra. Maitasuna edo... zeureganako nuen errespetua behintzat. Akabo dena delakoa. Bizitza honetan jasan ezin dudan zer-bait badago, marruka hitz egitea da. Eta momentu hartan jasan nitzakeen neurri audiofonikoak gainditu zenituen. Nire ordua heldu zen.

Gauetan irteten hasi nintzen, eta gautxoriz beteriko tabernak bisitatzen (Egia esateko bi bider soilik egin nuen, izan ere, oso kontrolaturik nituen etxeko sarrera-irteerak. Baina tira, nahikoa izan zen zu zirikatzeke). Gainera bigarren egunean, mutiko atsegin bat ezagutu nuen. Hamazazpi bat urte eta planta ona, zein hoberik?

Gurasoen etxean bizi zen baina bere koadrilakoek bazuten halako lokal moduko bat, eta toki aproposa izan

zen. Maitasun gau bat, berari ere halaxe esan nion, gau bateko kontua, baina gustura onartu zuen.

Goizaldera etxera itzuli nintzenean, berriz ere niri oihu egiten ez ausartzeko esan nizun, bestela ederki ordainduko zenuela (eta herriko baten batzuek ederki gozatuko zutela). Ikustekoa izan zen, bai, zure aurpegia, baina ez zinen ausartu ezertxo ere egiten, zeuk ere bazenekien zer komeni zitzaizun; emazte txintxoaren plantak egin nitza-la. Eta gisa hartako zurrumurruren bat amaiera izango zen zeuretzat.

Zeu ere, ordea, biziraute instintuarekin jaiotakoa izan eta erraz atera zinen hartatik ere. Ederki moldatu zinen zure banketxeko laguntxoekin, niri kontuetarako sarrera debekatzeko, eta honela beti zeurekiko dependentzia osoa lortzeko. Ez zenituen zure kartak ondo jokatu, ordea. Etxe barnean askatasun osoa neukan, eta ai gizaixoa! Ni bezalako etxekoandre tentel batek ordenagailua erabiltzen ez dakielakoan? Huraxe izan zenuen akatsik handiena, hasiera-hasieratik, etxekoandre tentel bat soilik nintzela pentsatzea.

Inoiz ez ezazu emakume baten gorroto-ahalmena subestimatu, ez ezazula pentsa gizonak emakumeok baino gogorragoak zaretenik, ez baita hala. Emakume bihotz zauritu bat baino gauza arriskutsuagorik ez dago munduan. Eduki ezazu hori beti gogoan (agian zeuretzat berandutxo, ezta?).

Izan ere, etxekoandre tentela izango nintzen agian, mundu gutxi ikusitakoa, baina banekien zeren bila nenbilen, eta non aurki nezakeen ere bai, ondotxo jakin ere. Ez al da zoragarria teknologiak egin duen aurrerapena azken urteotan? Ordenagailuan hitz bat sartu eta horri buruzko

informazio pila bat instantean. Zeren bila ari garen jakin behar soilik...

Halere benetan haserretu nindutenak egunkarietako titularrak izan ziren.

ETA-K BESTE BONBA AUTO BAT JARRI DU,
BIGARRENA HILABETE HONETAN.

Norbaitek belarrira oihu egitea baino gehiago gorrotatzen dudan gauza bakarra baitago mundu honetan: norbaiti bere merituak ukatzea...

Galdutako denboren zertzeladak

Estibaliz Lizaso Lopetegi
Usabalgo Laskorain ikastola
Tolosa

Gaurkoa bezalako gauak urri izan dira nire bizitzan, eta, aurrekoen antzera, honek ere badu zerbait berezia, ezohi-koa, besteetatik bereizten duena. Hitzez ager ezin litekeen nolabaiteko urduritasun sentimendua piztu da nire barnean iluntasuna gure inguruaz jabetu deneko. Iragana, ditzosozko iragana da berriz ere ezinegon honen sorburu. Izan ziren eta ez zirenen zergatiei buruzko galderen ezinezko erantzunen bila nabilen honetan, bihotz taupaden erritmoa azkartzeak zalantzaz beteriko arima salatu dit eta denboraren joanak zimurrez beteriko eskuak besaulkiaren besaburuetan izerdia lehortu nahian ediren ditut, nire harridurarako.

Oraingoan ere neure gogoaren ilunenean bizirik dirauten oroitzapenak, haiek berriro bizitzeak iradokitako beldurrari gailendu eta pixkanaka begirada nire eskuinean altxatzen den horma aldera okertzen nuela atzeman dut. Nire begiek handikiro zintzilik dirauen koadro isilarekin topo egin duten arte iragandako tartean denbora gainerako munduarentzat geratu egin dela iruditu zait. Gezurra dirudi koadro hau hogeita hamar urte baino gehiagoz nire aurrean egon izanak, nik begiratu ere egin ez arren. Baina ez zen beharrezkoa, koadro horren trazu bakoitza nire barrenean grabaturik baitago, eta hala iraungo baitu bizi naizeino.

Gaurkoa bezalako gauak dira, isiltasunak haustezina dirudienean, haizea ere kalera irtetera ausartzen ez denean, nire koadroak bizia hartzen duen unea. Zerua ikustea ezinezkoa izaten da horrelakoetan, lainoek kotoizko mantu batez estaltzen dute dena eta inork ezin asma lezake haren gainean jazotzen dena. Zalantza usain liteke nonahi eta denok ere egoeraren berezitasuna atzemateko gai bagina bezala, kaleetan ez da arimarik sumatzen, dena hutsik dago, bakarti, mortu.

Ezaugarri hauen guztien konbinaketak osaturiko ekua-
zio perfektuaren emaitza izaten da gaurkoan nire egongel-
lan gertatu dena. Koadroak bizia hartzen du, nolabait,
errealitatearen parte izatera iristen da eta ezinezko gerta-
tzen zait hari ihes egitea. Bere kolore guztiak nahaspilatu-
rik etortzen zaizkit burura, alferrik da ez begiratzea, pixka-
naka errealitatea nire memoriako irudiekin nahastuz bai-
toa. Gaueko itzalen beltzuneak argien kolorezko dir-dir
ahulen atzean ezkutatuz doaz eta koadroaren zeruan islatu-
riko mila gris ezberdinek kaleko lainoekin bat egin berri
dute. Bertan irudikaturiko gaua izan zen nire bizitzan lehe-
nengoz baldintza hauek bete zituena eta sekula jakingo ez
dudan ezkutuko arrazoiren bategatik, errepikatzen den
guztietan gau hartan sorturiko mirespena eta lilura berritu
eta sentimendu guztiak berriro ere bizitzera beharturik aur-
kitzen naiz.

Koadroari so nagoela, lehen begirada batean kolore ilu-
nen nahaste soil bat dirudiena pixkanaka itxura hartzen
hasien da eta nire memoriaren sakonenean ahantziz zihoa-
zen eraikin, zuhaitz eta argien forma eta koloreak koadroa-
ren erdi-erdian luzatzen den kalearen alde banatan beneta-
koak bailiran bereizteko gai naiz oharkabea. Margolanean
irudikaturiko gaueko bizipenak horren hurbil senti ditzaket
ezen gaueko hezetasunaren oroitzapen hutsarekin hotzika-
ra leun batek bizkarrezurra zeharkatu baitit. Berriro ere,
uda hartako gauetan horrenbeste aldiz egin bezala, Parisko
Pigalle auzoko kaleetan behera noala iruditzen zait.

Parisa iritsi berria nintzen. Garai hartan industriaren
mamua izugarrizko indarrean ari zen bere itzala Euskal
Herrian zehar zabaltzen eta, konturatzerako, nire ingurune
osoa harturik izan zuten bere burdinazko eskeleto eta ke
ilunezko hatsak. Hain maiteak nituen lur eta bizimoduaren

gainbehera ikusi baino nahiago izan nuen fardela bizkarrean hartu eta leku berri baten bila alde egitea.

Honela, bihotza gidari, nire urratsek beren joanean egiten zuten bidea jarraituz iritsi nintzen Parisa. Hiriaren ekialdetik sartu eta muturrez Montmartre auzoarekin egin nuen topo. Aspaldian begi bistan nuen Sacré-Coeur eliza aurrez aurre aurkitzean arnasa ere moztu egin zitzaidala uste dut. Horren eraikin handirik sekula ikusi gabea nintzen, ez nuen bere tamaina eta dotoreziari aldera zekiokkeen ezer ezagutzen. Inguru hura guztia, irudika nezakeen gauzarik handiena baino hamaika bider handiagoa zen, milaka eskailera, zerua urratzeko zorian zeudela ziruditen dorre zuri baino zuriagoak, munduko kolore guztiak biltzen zituzten beirategi erraldoiak... Baina itzelezko arkitektura erakustaldi hark eragin bikoitza izan zuen nigan, begien aurrean halako handitasuna izateak sortzen duen harridura eta liluraz gain, mundu honetan batak bestearekin inongo zerikusirik ez izan arren, edertasun mota asko zeudela ulertu bainuen.

Auzoko kale aldapatsuetan gora nindoan heinean tokia-
ren berezitasunaz jabetzen nintzen. Hura zen jendearen emana! Giroan aparteko iskanbila alai bat nagusitzen zen, era guztietako melodiak iristen ziren nire belarrietara, bazter guztietan margolariak inguruetan margotzeke geratzen zitzaizkien ikuspuntuak lantzen ziharduten, alboan margolan arraro eta bikainenak salgai zituztelarik. Itxura arloteko jendea zebilen kaleetan etengabeko joan-etorrian, besapean liburuak harturik, eta leiho guztiak zabalik zeuden, hauekariko gehienetan jendea ageri zelarik, ikusmiran nahiz kalekoekin berriketan.

Auzo hartan adin, sexu, arraza eta jatorri oro biltzen ziren, giro ezin atseginago hura bitxi bezain erakargarri

bilakatzen zuen nahitaezko osagaia zena. Era berean, aniztasun hau zen mundu osoan entzungai zen fenomeno ahalbidetzen zuena. Izan ere, Montmartren XX. mende hasieran inoiz izandako artearen garapen azkar eta aberatsena ematen ari zen, honen fruitu arte mota berri bat, arte modernoa, jaio berri zelarik. Aski ezagun zen kale eta plaza haiek artisten paradisu zirela. Bertan, poeta zein margolariek bizimodu berri bat sortu zuten, non sormena lantzea zen helburu bakarra eta diruarekiko kezka ez zuen lekurik. Muino hura mundu osoko artista bohemioen amesteko eta eredu zko babesleku bilakatu zen denbora gutxian. Paris arrazoiz zen, beraz, artearen ohorezko hiriburua.

Iritsi nintzen egunean bertan, leku berri hartan horren ezohiko zitzaizkidan gauza guztiek sorturiko jakin-mina ase nahian noraezean nenbilela, Pierre ezagutu nuen. Gizon beltzarana zen, iharra, janzkera zarpailetik ihes egin nahian arropa zaharrak txukun moldatzen zituen eta bista-koa zen zaindu gabeko bizar kiribildua, aurpegiko hezur nabariak ezkutatzeko alferreko saiakera zela. Margolaria zen, erretratuak egitea zuen gogoko eta aurpegi baten bila zebilela erreparatu zuen nigan.

Parisen igaro nituen egun haietan bera izan zen nire lagun eta gidari. Berarekin ezagutu nituen Montmartreko txoko ezkutuko eta miresgarrienak, artisten munduan sartu nintzen eta artea baloratzen ikasi nuen. Laster moldatu nintzen bizitza berrira eta txiroago baina zoriontsuago nintze-la sentitzen nuen. Inork ez zuen iraganari buruzko aipamenik egiten eta inork ez zidan nondik eta zergatik etorri nintzen galdetu. Iritsi nintzenetik geratzeko zela suposatu zuten denek eta hori zen axola zuen guztia. Hala ere, Pierrrek nire begiak irakurtzeko ahalmen berezia zuen.

Behinola Pierrek marrazki bat luzatu eta honela esan zidan: “Munduko lekurik ederrenean egonda ere, bada sekula ahaztuko ez dugun leku bat, gure jaioterria. Eta, denboraren indarra handia izan arren, are gogorragoak dira jaioterriak gudan erroturiko maitasun loturak, ezta?”. Irribarre egin eta marrazkiari begiratu nion. Nire pentsamenduetan murgilduta nengoen bitartean Pierrek erretratu bat egin zidan eta bertan nire pentsamenduak ia gardentasunez islaturik zeudela iruditu zitzaidan, izan ere, ortzimugan galtzen zen begirada hark, handituz zihoan nire herrimina argi eta garbi salatzen baitzuen.

Nire barnea husteko beharra nuen eta Pierrek bazekien hori, isilik zirauen nire hitzen zain. Hitz gutxitan eman nion nire inguruan ematen ari zen aldaketak nire barnean esnarazi zuen beldurraren berri. Berak irekitako munduan zein gustura sentitzen nintzen ere agertu nion. Baina, neurri batean, han aurkitzea ezinezko nuen baserri inguruko lasaitasun haustezinaren mira nuela esan nion.

Gure auzoa hogeita lau orduz esna egoten zela esan liteke. Egunez nagusitzen zen mugimendua azken eguzki printzak muinoaren gibelean ezkutatuz zihoazen neurrian itzaliz joaten zen eta haien ordeztu muino magaleko kaleak koloretako argiz janzten ziren, gaueko xarma misterio-tsuari ongi etorria emateko. Ilunarekin batera hiri guztiko jendea etortzen zen Pigallera. Ordu batzuetarako besterik ez bazen ere, kabareten munduko harri bitxi eta argi koloretuen distirak itsuturik, jendea klase arteko ezberdintasunez ahazten zen. Edertasun, sentsualitate eta dantzara gonbidatzen zuten doinu erakargarriek gaua magiko bilakatzen zuten eta festa giroa egunsentiko lehen izpiak argitzen hasi arte luzatzen zen. Mundu hori guztia bi hitzetan labur zitekeen: Moulin Rouge. Irekirik zegoen bitartean

bere lau hormen artean kontzentratzen zen gaueko bizitza jori eta alai. Lokal hark Pariseko xarmak gaueko ordu luzeetan itzali gabe iraun zezan ahalbidetzen zuen eta bertan biltzen ginenok ez genuen pareko ikuskizunik ezagutzen. Ezin deskriba liteke han barruan gertatzen zena, baina hain zen berezia, non laster ezagun egin baitzen mundu zabalean.

Gau hartan bertan, ohi genuen legez Pigalle aldera jaitsi ginenean, Moulin Rouge-ko ateetan geratu ginen, baina oraingoan ez ginen sartu. Ez nituen nire adiskidearen asmoak ezagutzen baina lokaleko ate pisutsuak ixtearekin batera ulertu nuen dena. Atearen danbatekoaren oihartzunak gure belarrietan jarraitzen zuen arren bat-batean kaleak nire begietara itxura guztiz ezezaguna hartu zuen. Isiltasuna erabatekoa zen, ez nintzen zirkinik egitera ere ausartzen eta teilatu gaineko haize errotaren argi gorritzko hegalek ilusio hutsak ziruditen. Guztiak zirudien ezberdina, zeruak ere gau hartan itxura berezia zuen. Lainoek zerua bere osotasunean estalirik izan arren ezohizko argitasunak kale osoa argitzen zuen, itzalak are handiago eta misteriotsuago bilakatuz.

Sor eta lor utzi ninduen ordura arte ikusteke nuen Parisen itxura hark. Sinestezina zen ate soil batek ikuskizunen mundu zaratsua, une haietan inguratzen ninduen bakearen erreinutik bereiztea. Sentimendu guztiak biltzen zituen hiriaren aurrean nengoela iruditzen zitzaidan eta bihotzez eskertu nion lagunari beste behin ere nire beharrak ase izana. Pierrek, beti alboan zeraman koaderno handia eta margoen kaxa atera eta ikusten zuena marrazteari ekin zion. Ikusten zena ez ezik, bihotzek sumatzen zutena marrazteko zuen dohainarekin maisutasunez irudikatu zuen begi aurrean genuena. “Faltan duzun lasaitasunak

ordu batzuk baino ez du irauten hemen; marrazki honek haren beharra sentitzen duzunero laguntzea espero dut.”

Baina lasaitasun bila ibiliagatik, gau hartan ezinezkoa izan zitzaigun horrelakorik aurkitzea. Ez genuen hitzik egiten, begirada kalearen amaieran tinko nuen eta Pierrek automatikoki hartzen zituen kaxatik koloreak, koadroari itxura ematen zion neurrian. Hala ere, bere arnas irregularrak eta tentsioaren eraginez teinkaturiko giharrek bere ezinegona salatzen zuten. Airean ere gertatzeaz zegoen zerbaiten gertutasuna usaintzen zen eta arrisku sentsazio indartsua barrua izozteko modukoa zen.

Ordubete eskas generaman koadroaren garapenean murgildurik, urruneko leherketa batek errealitatera itzularazi gintuenean. Begirada altxa eta zerua sutan ikusi genuen. Geure eskuinaldean infernuko kolore guztiak teilatuen jabe egin zirela ziruditen eta, erreakzionatzeko betarik gabe, leherketa berri batek geure azpiko lurra dardarazi zuen. Laster iritsi ziren tiro eta garrasi oihuak geure belarrietara. Moulin Rouge-ko ateak parez pare zabaldu eta nor baino nor lehenago atera nahian, bultzaka agertu ziren ehunka lagun. Segundo gutxitan kalea norabide guztietan korrika zebilen jendez bete zen, izua irakur zitekeen euren begietan eta ihesa zen denen ahotan entzuten zen hitza. Gerra iritsi zen. Nire inguruan gauza bakarra ikusteko gai nintzen: kaosa.

Zutik jarraitzen nuen, lehen leherketa entzutearekin geratu nintzen moduan, baina ingurura begira egonagatik, ez nintzen gertatzen ari zenaren parte sentitzen. Pierre nire alboan zegoen, isilik, baina bere buruan milaka burutapen sekulako abiadan zebiltzala sentitzen nuen. Zerbait egin beharra zegoen, eta lehenbailehen. Elkarri begiratu genio-

nean dena argi ikusi genuen. Ez zen hitzen beharrik izan, ezta agurrik ere. Hark ongi ulertu zuen etxera itzuli nahi nuela, eta koadroa luzatu eta kalean behera korrika aldentzen ikusi nuen jende artean galdu zen arte. Huraxe da Parisi buruz dudan azken oroitzapena. Banaketa gogorra izan zen, ia behartua, baina agur hark gero arte kutsua izateak bihotz mina arindu zidan.

Ia mende oso bat iragan da 1914ko uda hartaz geroztik, eta egongelako horman duintasunez zutik dirauen koadroa da I. Mundu Gerrak eraldatu aurretik “argien hiriak” zuen itxuraren azken lekukoa, baita nire bizitzan horrenbesteko garrantzia izan duen garaiaren testigantza bakarra ere. Pierek, bohemioen garaiaren amaiera ailegatu zela onartzeko prest ez zeuden gainerako artistekin batera, Montparnasse inguruan berregingo zuen bizitza. Eta geroztik bere berri-rik izan ez dudan arren, badakit koadroari darion indar hilezkorra noizbait itzaliko bada, gauza bakarra izango dela honen eragile. Bienbitartean, inoren arreta erakartzen ez duen marrazkiaren argi-ilun bikainek, nik ez beste inork jaso ezin ditzakeen indar eta bizi propioz beren lana betetzen jarraituko dute, han ikasiriko guztiak betiko nirekin izateaz arduratzen.

Ipar izarra

Goiatz Labandibar Arbelaitz
Orereta ikastola
Errenteria

Ez, berriro ez!”, pentsatu zuen berekiko haurrak. Ez zitzaion gustatzen zer-nolako itxura hartzen ari zen eguneko azken otordua. Aita-amak, ia ohitura bihurturik zegoen bezala, elkarri oihuka eta izugarrikeriak deika ari ziren, eta, bitartean, haurrak amesgaiztoa zirudien errealitatetik hanka egin nahi zuen, baina ezin.

Begiak itxi zituen, eskuak hauen gainera eramanez, baina alferrik. Hatzak belarri inguruan behar zituen, aita-amen elkarrizketako hitzak entzun ez zitzaizkion. Bi esku beharrean, dozena bat nahiko zituen zentzumenak isolatzeko, edo, bestela, sentimenik gabeko haurra izan gura zukeen.

Baina alferrik zen hura guztia: begiak itxirik bazeuzkan ere, erretinan grabaturik zituen bezperako sesioak, eta bere aurrean gertatzen zena ikus zezakeen mugimenduz mugimendu, begiak itxita eduki arren. Alferrik zen belarriak itxi nahi izatea ere, aitaren orroek eta amaren marruek bidea topatzen baitzuten mutikoaren barneraino iristeko.

Sesioak apur bat gehiago jarraitzen bazuen... bazekien berak nola amaituko zen hura guztia.

“Ez! Ez! Berriro ez! Beste behin ez! Ez! Ez dut nahi!”, eta barne-barnetik, ozen, irten zitzaion oihu hura, hitz hura.

– Eeeeeeezzzzzzzzzz!!!!!!!!!!!!!!

Aita eta amaren arteko gorrotoa airean gelditu zen, izoztuta bezala, mugitzeko gaitasun barik. Denbora batez, tentsioa sukaldeko izkina bakoitzean kokatu zen, handik irten nahi ez baina gelditzeko beldurrez. Mutikoak begiak zabaldu zituen astiro. Baina aita aulkitik altxa eta ateari danbateko bat emanaz nola irteten zen ikusteko lain denbora izan zuen.

Ama semearengana hurbildu zen, poliki, xamur. Ilea laztantzen hasi zitzaion, masailak muxukatzen, emakumearen begietatik beherantz erortzen ziren malkoez bustitzen. Ez zuen hitzik esaten, baina bere fereka bakoitzak semearenganako maitasuna zer-nolakoa zen zioen elerik gabe.

Haurrak amari begiratu zion. Emakumearen aurpegi azkarregi zahartuan kokatu zituen begi biak. Amaren begiek beldurraren kabia ziruditen, sufrimenduaren kaiola. Amaren eskuek bera laztantzen zuten bitartean, inpotenziaren harra sentitu zuen bere baitan: haur baten inpotenziaren harra.

Amaren betondoari begiratu zion. Handituriko eta more koloreko betondoari. Amaren besoei erreparatu zien, eskuei, zakarrak, erreak: gehiegi bizitutako eta pairatutako gorputza zirudien amarenak.

Bat-batean, beldurra izan zen haurraz nagusitu zena. Beldurra, izan ere, amaren begietara bigarren aldiz so egi-terakoan, berauetan irakurri ahal izan zuen bizitzari zion mesprezua eta estimu urria. Eta horrek beldurtu egin zuen.

Ama.

Ama-semeen artean isiltasunaren erreinua zegoen. Ama erreinuko koroarik gabeko erregina zen; semea, oinordeko inoiz izango ez zen printzea. Ez zen hitzik tartekatzen euren elkarrizketan, isiltasunaren erreinuak soberan baitzituen guztiak.

Baina...

– Beñat, zoaz ohera, bihar ikastolara joan behar duzu eta.– Esan zion amak.

Haurra altxa egin zen eta atea zabaldu zuen, bultza egin zion honi, aitak emandako danbatekoaren oihartzuna oraindik entzuten zuelarik.

Etxea isilik zegoen. Aitak etxetik alde egin zuen. Hasetzen zen aldiro aitak etxetik alde egiten zuen, baina beti itzultzen zen. Eta Beñatek bazekien orduan ere itzuliko zela. Zorionerako ala zoritxarrerako. Zertarako itzultzen zen zen Beñatek ulertzerik ez zuena.

Ohe gainean etzan zen, luze. Iluntasuna zen nagusi gelan. Argitxo bat besterik ez zuen piztu haurrak, bere irudimeneko mamuak gelan barna ez zebiltzala sinesteko nahikoa zen. Sabaiari begira gelditu zen denbora luzez.

Gelako sabaiak zinemako pantaila zirudien: bere bizitzaren filmaren ikusle zen. Ama eta aita ikusten zituen: euren arteko liskarrak, mesprezu keinuak, gorrotoa... Bere burua ikusten zuen: ikastolako bakardadea, guztiarenganako beldurra, kurtso handiagoetako bromak... Beldurra eman zion ikusten zuenak. Film hura terrorearen generokoa zen duda izpirik gabe.

Begiak itxi zituen, ea filma amaitzen ote zen. Baina sabaiak filmaren proiektioarekin jarraitzen zuen. Argia piztera joan zen. Baina guztiak han jarraitu zuen. Malkoak isurtzen hasi zitzaizkion. Antsietatea beraz jabetzen zihoan. Beldurra, beldurra... aaaaaaaa!!!

– Aaaaaaaa!!!!!!! Eezzzz!!!!!!! Aaaaaaaa!!!!!!!
– Erotzen ari zen, sabaiko irudiak uxatzen saiatzen zen, baina atzetik jarraitzen zioten. Oihuka segitzen zuen, etengabe, ero baten gisan, malkoak geroz eta lodiagoak ziren, geroz eta ugarriagoak...

Ama azaldu zen atean.

– Zer duzu, Beñat?

Haurra amaren besoetara joan zen korrika. Negarrez jarraitu zuen amaren magalean, honen goxotasunaren itzalpean.

– Lasaitu...

Arropa erantzi zion, pijama jantzi... oheratu egin zuen... ferekatu, laztandu, musukatu... Traumaz josiriko haurrari penak arindu nahi izan zizkion.

Beñaten ametsetan inoiz ez ziren bizitzako gauzak agertzen. Beti mundu ideala zen, perfektua. Neskabila batekin amestu ohi zuen: ahurkada bete goxoki eskaintzen zion neskabila batekin. Beñati behin eta berriro eskaintzen zizkion goxokiak, eta hurbiltzen hasten zitzaion bakoitzean, neskatzak pauso bat atzera ematen zuen, horrela, beti distantzia bera zegoen bien artean: inoiz ez zen mutikoa goxokietara iristen.

Gauerdian, mutikoak bere alboan norbait sumatu zuen. Ama zen. Aitarekin lo egin beharrean beregana heldu zen. Ziur zegoen Beñat aita etxera iritsia izango zela, mozkorturik, lotsagabe... Agian ama berriro jo zuen... agian...

Ama alboan zuela sentitzeak lasaitasuna eman zion mutikoari. Han bazegoen, aitaren eskuetatik urrun baitzegoen, eta berarekin zegoen. Eta berriro loaren besoetara joan zen: ametsetako mundura, irrealitatearen olinpora. Ea ordukoan goxokietara iristen ote zen...

Ama denbora luzez semeari begira egon zen, ilunpea eta isiltasuna lagun. Mutikoaren arnas lasaiaren hotsa soilik entzuten zuen, mutikoaren presentzia bakarrik sumatzen zuen. Amak mutikoari erreparatu zion: hain estuki besarkatzen zuen hartzari, kentzeko beldurra balu bezala.

Jaio zenean oparitu zioten hartz hura. Haurrak hainbat eta hainbat jostailu izan zituen, baina hartz hura sekulan ez zuen baztertu. Zahar-zahar egina zegoen. Hala ere, mutikoak bera behar zuen lo egiteko. Hari desberdinez ehunka bider josirik zituen beso, hanka, belarri eta isatsa, baina haurrak, hala ere, hartz hura eta ez beste maite zuen.

Semea lotan ikusteak mutikoak zeuzkan beldurrak ikusiarazi zizkion: hartzaren beharra, bakardadeari beldurra... haurrari traumek haztea galarazten zioten. Eta bera, haurrari eginiko begiratu bakoitzeko, errudun zela sentitzen zuen. Errudun, haurraren bizitza hobea ez zelako, errudun, bere bizitza ere haurrarena bezain txarra zelako.

Eta semea besarkatu zuen, maitekiro, estuki. Seme hari, bizitzarekin lotzen zuen hari bakarrari, bere bizitzaren zeru goibelean bere untzia gidatzen zuen Ipar-izar bakarrari.

Bizitza gogorra da

Jon Rementeria Larruzea
Barrutialde institutua
Arratzu

Zelan zoaz orduotan kalera, seme?

– Ama, utzi baketan, mesedez. Gaur ez naiz egun onazaten ari.

Klonk! Atearen ixte hotsa.

– Ez al dabil arraro aspaldion?

– Utziozu, emakumea. Gaztea da, ez daki zer nahi duen ere. Argituko zaio burua egunen batean.

– Bai, badakit zer den hori. Neu ere nerabe izandakoa naiz. Horrexegatik, hain zuzen...

Din-don! Txirrinaren hotsa.

– Lasai, ez nator bueltan oraindik, giltzak ahaztu zaizkit.

•••

“Bizitza gogorra da” esaten zuen bere ikastolako maisu batek. Berak ez zuen sekula pentsatuko zakur berde bat baino bitxiagoa zen irakasle hark esandakoa hainbesteko egia zenik. Orduan filosofo eszentriko baten hitzak iruditzen zataizkionak, eguneroko bizitzan pairatuko zituela jakin izan balu, ez zituzkeen txiste batzuk egiteko gai moduan hartuko. Baina bizitza gogorra da zinez, eta inoiz ahaztuko ez dituen aldaketak jasaten ikusi zuen bere burua.

15 urte besterik ez zituen orduan –16 egitear–, eta umea zen oraindik. Betikoak ziren adiskideak, irakasleak, futbol-lagunak, senitartekoak... kezkak ere betikoak ziren: ea matematikako azterketan 5 bat, 6 bat edo 8 bat aterako zuen; ea futbol ligan azken, azken aurren, 11. edo azpitxapeldun geratuko ziren; ea oportetarako gurasoak berak joan gura zuen tokira joateko konbentzitzen zituen... Baina iritsi zitzaion garaia, inork zehaztua ez duen garaia, hazten hastekoa alegia.

Adiskide berri bat egin zuen; laguna, hobeto esanda. Bizitza guztian bere ikastola berean, auzo berean eta herri berean ibilitakoa; baina sekula honen adiskidetasunari garrantzirik eman ez ziona. Hura hazten hasia zen jada. Pentsakera konplexuagoa zuen bere betiko adiskideekin alderatuta.

Arraroa zen bere betiko bizitzaren zati izatea lagun hori, eta sekula harreman berezirik eduki ez izana. Baina horrelako gauzak ditu patuak. Berak nahi duenean elkar-tzen eta banatzen ditu gauzak, egoerak eta pertsonak. Eta patuak berak nahi izan zuen adiskide *ezagun-ezezagun* hau bere lagun min egitea. Ustekabean bere konfiantza berega-natu zuen. Bere txikikeriak kontatzen zizkion lagunari eta honek bere barneko hausnarketarik sakonenak ateratzen zizkion.

Mundu berri batean barneratu zen orduan. Dena zen aurkikuntza, dena zen berria, ordurarte imajinatu gabekoa. Buruak, matematikako problemak ebazteko baino askoz gehiagotarako balio zuela ohartu zen. Atzean geratu zitzaizkion lehenagokoak. Zer zerikusi zuen azterketetan nota bat edo bestea ateratzeak? Zer zerikusi zuen ligan azken zein lehenengo amaitzeak? Zer zerikusi zuen opo-rretan leku batera joateak, bestera joateak edo ez joateak? Une jakin batean sentsazio txarra edo hobe sentitzeko baino ez zuen balio. Baina, azken finean, horrek ez zuen bere pertsonalitatea eraikiko. Lagunak, ordea, bazekien zerk egiten zuen pertsona berezi: buruak eta bihotzak. Sen-timen horiek jarraitzen bukatu zuen berak ere azkenik. Ez ziren galderak bakarrik etortzen bere burura, ohartzeak eta kritikak ere bazetozen. Bere ustetan zuzena eta okerra zena baloratzen hasi zen, zer egingo lukeen berak ikusten zituen egoeren aurrean. Balore berriak aurkitu zituen bizitzan.

Bere heziketak ez zion inolaz ere balore horiei buruzko informaziorik txertatu. Ez ikastolan, ez etxean, ez inon, ez zaio inoiz ere garrantzirik eman... heriotzari, esaterako. Beti ikusi izan zuen mundua urdin kolorez, zeruaren urdin kolorez. Orain, zerua urdin ikusi arren beste urdin batez ikusten zuen. Itsasoaren urdinez, misterioz eta minez betetako heriotzaren kolorez. Ez zuen egundo pentsatuko hain hurbileko gauza zenik, egunero irits zitekeenik eta batzuetan bizitzea baino desiragarriagoa ere izan zitekeenik. Baina esan bezala, mutil berria zen, hobe edo okerragoa ezin zehaz zitekeen, baina ez zen jada sekula lehengoa izango.

Futbolak, ikasketek eta guraso eta lagunek bazirauten bere bizitzan. Nahitaez bizi beharreko egoerak ziren. Hala ere, bere pentsakera berri hartan ez zirenez funtsezko ardatz, nahiko baztertuta zituen. Bere “bizitza soziala” –nolabait esatearren– gainbehera zihoan. Nahiz eta bera ohartu ez, igartzen zuen inguruak ez zuela berarekin ohi zuen bezala jokutzen. Hasiera batean ez zion aparteko garrantzirik ere eman, eta berak berean jarraitu zuen. Bost axola zion denak. Berdin zion jendearen ahotsa argi ibil zedin ozen esaten entzuteak. Tarteak zuen uneoro egiten zuen ihes bizitza errealetik, agian gogorregia zelako, institutuan, etxean... –futbola utzia zuen jada– jasaten ari zen gainbeherak depresiora eraman ez zezan. Orain kalea zuen babestoki. Elementu bat gehiago bizitzako instituzioen zerrendan. Kalea, hainbeste argi, hainbeste zarata, hainbeste jendekin; eta hala eta guztiz ere hainbesteko bakardadearen igorle. Etxea, ikasketak, lagunak, kalea...gizarteko instituzioak... Egia esan, ez ziren eta ez dira arrazoi aski sendoak pertsona baten hainbesteko sufrimendua edo egoenezina justifikatzeko; izan litezke agian pertsona horren-

gan izaera aldaketa eragiteko. Direnak direla eta ez direnak ez direla, ordea, iparra galduta zebilen bera, nahiz eta norabide finkoan joan. Baina denbora pasa ahala, gero eta nabarmenagoa egiten ari zen hainbat aldiz aipatu ditudan instituzioetan isladatzen zen jokabide aldaketa.

•••

Din-don! Txirrinaren hotsa.

– Lasai, ez nator bueltan oraindik, giltzak ahaztu zaizkit.

– Aizu, ez al dizut galdera bat egin irten baino lehen? Ez al dut, bada, erantzunik merezi?

– Ama, ez gaitezen has, mesedez!!

– Has ez, buka. Arraro zabilta aspaldi honetan, arraroegi gauza onerako. Ez dizut ateratzen utziko zer jazotzen zaizun jakin arte.

– Ez nauzu katoliko egin, ez sekula elizara eraman, eta orain sermoiak eta aitortzak. Falta zitzaiguna!

– Errespetu apur bat! Lotsagabe hori! Lehen ez zinen horrelakoa ba!

–

– Ikasiko duzu zeuk ere zer den bizitzaren gogortasuna, eta orduan ahaztuko dituzu orain darabiltzazun harro haize eta misterio inuzenteak.

•••

Bere buruan gogoeta sortu zen orduan ere. Bakarrik zegoen munduaren aurrean. Benetako maisu eta lagun zuena baino ez zuen alboan. Ez al zen inor ohartzen, era batera edo bestera, gehiago edo gutxiago, sufritzen ari

zela? Ez al zuen munduan beste inork pairatu berea bezalako oinazea? Momentuz erantzunik bariko galderak. Bien bitartean ingurua martxan zebilen, etengabeko mugimenduan. Sistema bere ereduak inposatzen eta biztanleriaren %99,99a –bera izan ezik– aramu sarean erortzen.

“Bizitza gogorra da” esaten zuen hark. Ez zitzaion arrazoirik falta. Adoleszentzian “arrazoi” batzuegatik eta aurrerantzean beste “arrazoi” batzuegatik, mundu honek beti erakutsiko digu konplikazioen bat. Geure izatea erakitzerara behartuko gaitu, gizarte honetan egokitzen jakitera; eta inoiz, heriotzan pentsatzera ere bai.

Zer egin? Nora jo? Ibilbidea ez da sekula amaitzen. Heriotza da galduentzako azken baliabidea. Patuak nahastu die bidea. Patuak nahastu dio bidea. Baina ezin zehatz daiteke bide zuzena edo okerra den, zeruaren urdin kolorekoa edo itsasoaren urdin kolorekoa, bihotz-buruetakoa edo ingurukoa. Azkenerako ez da ez maisu ez lagunik ere geratzen. Mundu berria zahar noiz egingo itxarotea baino ez da geratzen. “Gogorra” da zer egin ez jakitea.

•••

– Ikasiko duzu zeuk ere zer den bizitzaren gogortasuna, eta orduan ahaztuko dituzu orain darabiltzazun harro haize eta misterio horiek.

– (Zer ote dakizu zuk nik zer dakidan bizitzaz?)...

– Ba al zoaz? Itzuliko al zara?

– Bai... Gero arte.

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Urruneko oroitzapenak

Ander Timoteo Delgado
Txingudi institutua
Irun

Ezkatatu beharra zuen, gauzak okerrera egiten ari baitziren. Kaleko iluntasunak etxeko zirrikitu guztiak estaltzen zituen eta tiroen hotsek Lerimen belarri txikiak jaten zituzten pixkanaka-pixkanaka. Beldurra bere zain guztietan barrena igarotzen zen bitartean mahaiaren hanka bati gogor heltzen zion, lurrak ematen duen ziurtasuna nahikoa ez eta bere oinen azpian zegoen infernuko suei ihes egin nahiko balie bezala. Soldaduen pauso gogorak sumatzen zituen leiho hautsietatik, hizkuntza arrotz baten garrasiak tartekatzen zitzaizkielarik.

Bat-batean, etxeko atea bortizki bota zuten lurrera eta lasterka sartu ziren, etxea linternaz miatuz. Atearen soinu zakarrak atera zuen Lerim bere gogoetatik, berriz ere errealitate zikin hartara itzularaziz. Inoiz baino beldurtuago zegoen, eskuko argiek sortzen zituzten itzalek inoiz ez bezalako beldurra sentiarazten zioten.

Soldaduak ziren bere etxean sartu zirenak, soldadu errukigaitz eta beldurgarriak. Momentu hartan itzal bihurtu nahi zuen, ikus ez zezaten, etxeko iluntasunean zehar bidaiatzeko eta heriotzaren zerbitzari haiengandik babesteko. Begiak itxi zituen eta oroitzapenetara bidaiatu zuen, egun arruntetara. Afalorduak oroitu zituen, familia osoa elkartzen zenekoak; algarak entzuten zituen bere barnean, aitaren ahotsa afaria prestatzen zuen bitartean, amaren musu gozoak oheratzen zirenean, alboko bizilagunen zaratak eta liskarrak... Jada hori guztia galduta zegoen eta Lerimen malko distiratsuak ziren oroitzapen horien lekuko bakarrak.

Norbaitek heldu eta arrastaka atera zuen mahai azpitik. Begiak ireki eta begirada hutsa zuen soldadu bat ikusi zuen harrizko zutabe garai bat balitz bezala. Altxarazi eta pistola bat bizkarrean jarrita kalera jaitsi zuen.

Kalea gorpuz beterik zegoen. Oraindik ere begiak irekiak zituzten gorpuek, keinu hotz eta izukorrarekin, beraien azkeneko irudia heriotzaren aurpegia izan balitz bezala, inork inoiz ikusi gabeko zerbait ikusi izan balute bezala. Soldaduak euren gainean zebiltzan itsu, ero, axolagabe, begiak galdu izan balituzte bezala, eta beste norbaitek gidatuko balitu bezala. Hiltzeko makinak ziren, deabruaren gidaritzapeko makinak.

Ordu batzuk igaro zituen kamioi baten ateari lotuta, soldaduek berataz barre egin eta erretako zigarroak aurpegian itzaltzen zizkioten bitartean. Lerimek jada ez zuen minik sentitzen, bizitzaren aurrean etsitzeko zorian zegoen, kanpoko minak baino gehiago barruko penak akabatzen zuen.

Soldadu guztien artean bat bereizi ahal izan zuen, oraindik begien argitasuna eta distira galdu ez zuen bat. Haren irudia zirriborrotsu ikusten zuen. Ezin zuen aurpegia bereizi, baina begiak, begiak bai, argi eta garbi ikus zitzakeen. Lerimek itxaropen izpi baten distira ikusi zuen begi haietan eta, ahots urratuz, laguntza eskatu zion, behin eta berriro, baina ez zion entzuten. Ezintasunean, lepotik heltzen zion soka askatzen ere saiatu zen, soldadu harengana bultzatzen zuen indarrari jarraitzeko, baina ezinezkoa zen. Soldadua urrunean desagertu zen, bere begiak eta hauekin batera Lerimen askatasun itxaropena eramanez.

Gerraren hotsak apalduz joan ziren Lerimen belarri txikietan, xuxurla gozo bihurtu ziren arte. Nekeak eta sufri-menduak ametsen mundura bultzatu zuten, eta han murgildu zen goizaldera arte urrutiko oroitzapenetan bidaiari.

Eguzki izpiek zauriz beteriko aurpegia laztandu zuten eta betazalek erantzun gisa begiak erakutsi zizkioten.

Lerim traste zaharrez beteriko gela txiki eta hotz batean zegoen, leiho bakar batek argituta. Aurreko gaueko soldaduen begiak oroitzen zituen oraindik: argiak, distiratsuak, ederrak... eta horrek gorputzean zehar zituen zauriak ahaztarazi egiten zizkion. Gose zen, egarri ere bai; baziren bost egun ezer jaten ez zuela, bere lagun minarekin egon zen azkeneko alditik, alegia. Txikitatik ezagutzen zuten elkar, betiko lagunak ziren, behin elkartutakoan inoiz banatzen ez direnetakoak. Harekin banatu zituen bere azkeneko ogi puskak, eta algarak, urrutitik etorritako noraezean zebilen bala batek bere bizi motzari amaiera eman zion arte.

Oroitzapenak alde batera utzi zituen mutilak, atean ondo bereizi ezin zuen gorputz lirain eta eder bat agertu zenean. Zuriz jantzitako emakume ilehori begi urdin bat zen. Bere begiak itsaso zabalera irekitako leihoak ziren. Ez zirudien gaiztoa zenik, ezta min egitera zetorrenik ere. Eskuetan jaki gutxi batzuk zeramatzan, ura eta ogi puska bat. Hitzik esan gabe mutilari eskaini zizkion eta honen esku dardartiek atseginez hartu zituzten. Buruarekin esker-tze keinu bat egin zion eta emakumeak bere izena esan zion, Helen. Lerimen pentsamenduetan izen hori behin eta berriro errepikatu zen, zeinen izen ederra, nolako emakumea halako izena. Helenek mutikoari hitz egiten jarraitu zuen; jeneral baten zerbitzaria zela esan zion, eta denbora luzea zeramala han lanean behartuta... Hitz gozo haiek Lerimen adorea piztu zuten, igarotako hilabeteak oso gogorrak izan baitziren eta bere laguna hil zutenetik ez baitzuen inorekin hitz egin. Aurreko gauean ekarri zutela esan zion, eta hilik egongo balitz bezala han utzi zutela zauriz josita. Helenek ikusi zuenean laguntza behar zuela pentsatu zuen. Munduan isolaturik baleude bezala elkarrekin hiz-

ketan jarraitu zuten luzaroan, inguruan hiltzen ari zen jendeaz ohartu gabe.

Gelatik kanpo, zango hots gogorrak entzun ziren, soldaduen botak lurra gogorki zigortzen ari balira bezala. Helen segituan altxa zen. Itzuliko zela zin egin zion eta ate atzean desagertu zen. Lerimek aurreko gaueko soldadua oroitu zuen, begirada itxaropentsua zuen soldadu hura, Helen bezala desagertu zen. Zuriz jantzitako emakume hura itzuliko ote zen galdetu zion bere buruari. Leiho txikitik begiratu eta ikusten zuen zero zatiari so bere amak abesten zion kanta gogoratu zuen, zango soinuak hurbiltzen ziren bitartean. Izua bere zainetan barrena zabaldu zen hatz puntetaraino, hotzak bere gorputza uzkuritu egin zuen, begiak itxi egin zituen, berriz ere, itzal bihurtzeko asmoz, soldadu garai eta indartsu batek besotik hartu eta korridorera atera zuen arte. Gela hotz batera eraman zuten gazte-txoak arrastaka. Bere garrasiak hormak pitzatzeko adina-koak ziren.

Eraikinaren kanpoaldean zeuden soldaduek Lerimen garrasiak entzun zitzaizkien, paretak zeharkatzen zituzten eta ziztu bizian edonoren belarrietan sartzen ziren bere sufrimendua helaraziz. Gela hartan gertatzen ari zena deskriba ezina zen; gizakion gaiztakeriak baino gehiago, deabruaren beraren gaiztakeriak sor ditzakeen torturak ziren. Berdin dio nork egiten zituen, zergatik egiten zituen ere. Kontua zera da, ausardia eta indarkeria bortitz eta gupidagabe baten agerpide zirela.

Eguzkia zeruko errege bilakatu zenean atera zuten Lerim gela hartatik. Ezin zen bere kabuz ibili; arrastaka eraman behar izan zuten, baina oraingoan gazteak ez zuen inongo garrasirik egiten, eztarria urratua baitzuen oso, bur-

dina gori batez laztandu izan baliote bezala. Traste zaharrez beteriko gelaska hartan edonola utzi eta atea giltzaz itxi zuten. Mutilak zauriz beteta zuen gorputza. Gelditzen zitzaizkion indar apurrekin, azkazalik gabeko hatzekin eta listuarekin zauriak sendatuz joan zen. Minak arnas hartzea eragozten zion eta begiak irekita izatea ere kosta egiten zitzaion. Nork esan hain zoriontsua iruditzen zitzaion bizitza honela bukatuko zuenik.

Begiak itxi zituen eta bere oroitzapenetan murgildu zen, gero eta urrunago zeuden oroitzapen goxoetan. Bere gurasoek oroitu ahal izan zenerako norbaitek besotik heldu zion, baina Helen zela ikustean lasaitu egin zen. Honek irribarre fin batez agurtu zuen eta hitzik esan gabe eskuetan zituen zapi zuri batzuez zauriak garbitzen hasi zitzaion. Lerim babestuta sentitu zen Helenen besoetan. Emakumea abesten hasi zitzaion Lerimi, inguratuta zuen odol putzutik altxatzen zuen bitartean. Kanta hura ezaguna egiten zitzaion mutilari; bere amak abesten zion kanta bera zen eta aspaldian ez zuen emakume baten ahotsa entzun. Helenen ahotsa bere jantzia bezain zuri eta garbia zen. Oraingoan bere begiak gupida malko gardenez bustita zeuden. Lerimek argi eta garbi oroitu zuen bere amaren aurpegia, irribarre zoragarri batez apaindua. Elkarrekin azkeneko aldiz egon ziren eguneko irudiak ziren. Egun hartan gurasoekin mendira joan zen eta han bazkaldu zuten eguzkiaren begiradapean. Halako batean, soldadu batzuk agertu ziren zuhaitz artetik eta, Lerimen gurasoak preso hartu bitartean, honek sasi artean ezkutatzeko aukera izan zuen. Urrunetik ikusi ahal izan zuen bere gurasoak nola hiltzen zituzten mantso-mantso, berari, ezintasunean, ikuskizun tamalgarri horrek sorrarazitako malkoak zerizkion bitartean.

Helenek musu bat eman zion kopetan eta horrek atera zuen oroitzapen gaizto hartatik. Lerimek begietara begiratu zion, han nonbait une batez ongizatea ukituko balu bezala. Lore txiki baten petaloak bezain ahul zegoen eta bizirik irauteko indarrak agortuak zituen. Odol putzu batez inguraturik zeuden biak, trastez beteriko gela hartan, mundua haien inguruan bueltaka zebilen bitartean. Helenek bere buruari hilketa zigor hura merezi izateko zer egin ote zuen galdetu zion; erantzuna Lerimek berak eman zion bere pentsamenduak igarri izan balitu bezala. Bere gurasoak erresistentziako buruzagiak zirela esan zion eta hauek hil ostean bere bila ibili zirela baina ez zutela aurkitu aurreko gauera arte. Helenek lasaitasun hitzak xuxurlatu zizkion belarrira, hiltzeko zorian zegoela antzeman baitzuen. Lerimek bere amak abesten zion kanta hura abes zezala eskatu zion Heleni eta honek hala egin zuen; gozo-gozo abestu zion mutilari honek azkeneko aldiz begiak ixten zituen bitartean. Lerimek soldadu haren begirada oroitu zuen, bere lagun minarekin egindako azkeneko solasa, Helenen edertasuna... Eta, azkenik, urruneko oroitzapenetara bidaiatu zuen itzulbiderik gabeko bidaia amaigabera.

Ez dut ezer ulertzen

Antton Alberdi Estibaritz
San Bartolome ikastola
Elgoibar

Ate zarpaildu batetik barrena atera gara. Eguna ilun dago eta haizeak bortizki astintzen ditu inguruko zuhaitz kiskaliak. Ez dago eguzkiaren arrastorik, ezta ilargiaren edo izarrenik ere. Laino beltz lodi batzuk gailentzen dira bizi naizen Palestinako Ramalako hiriko zeru-gainetan. Aita eta biok etxetik atera berri gara eskolara bidean egun berri bati ekiteko.

Kale ilun batean barrena goaz, farolak itzalirik daude eta behe-lainoa da errege egunsenti hits honetan. Aitak eskutik helduta narama pauso bizkorrean aldapan behera; gero eta iluntasun sarkorragoan ari gara murgiltzen. Aitak burutik heldu, makurtu eta izkina batean itxaroteko agindu dit. Berehala, ate ilun eta erdi apurtu batetik barrena sartu da. Atea itxi eta isiltasunak bereganatu du ingurua.

Pertsona arraro asko ari dira pasatzen nire begien aurretik. Horietako anitz pankarta eta kartel batzuekin doaz, eta haietan turbantedun gizon bat ageri da irudikaturik. Hitz batzuk dituzte azpiko aldean, baina ez dakit zer jartzen duen, irakurtzen ikasten hasi berri bainaiz eskolan. Hala ere, lagun horien aurpegietan ez da lasaitasun aztarnarik islatzen, guztiz kontrakoa baizik, urduritasuna dela nagusi esatera ausartuko nintzateke...

Esku bat pausatu didate sorbalda gainean, atzera begiratu eta aitaren aurpegi kezkatu eta pixka bat izutua ikusi dut berriro aurrean. Bistan dago zerbait larria gertatzen ari dela, edo gertatuko dela egun arraro honetan. Aitak altxatzeko agindu eta aldapan behera jarraitu dugu. Gero ezkerretara eskailera batzuetan behera abiatu gara, ezaguna zaidan ibilbidetik at, paraje arrotz berrietan murgilduz. Ez dut ezer ulertzen...

Eskaileretan barrena goazen bitartean inguru berriak ezagutzeko aukera dut. Kale estuaren amaieran edifizio

handi eta eleganteagoak ikusten ari naiz behe-lainoa altxatzen ari den bitartean. Bukaerara iristean beste kale handiago batean sartu gara. Aitaren esanetan, etorbide bat omen da.

Eskuinetara jende ugari ikus dezaket, pankartak eta garrasiak dira nagusi jende multzoaren artean. Esango nuke lehen ikusitako pertsona horiek talde horretan daudela. Aitak begirada kezagarri bat luzatu dit, eta hitzik esan gabe, eskutik helduta, kalea zeharkatzen hasi gara korrika batean. Beste aldera iritsi gara.

- Aita, zer... zer gertatzen da?
- Ez da ezer, Samir, manifestazio bat besterik ez da.
- Zer da hori, aita?
- Garrasi egiten ari den jende multzo bat, besterik ez.
- Eta zerga...

...Ahoa tapatu dit. Zarata batzuk entzuten dira, garrasiak dirudite. Iluntasunera sartu gara aita eta biok. Aurrean zortzi bat lagun ikusten ari naiz. Batzuk besteak jipoitzen ari dira, gu isilik gaude ate baten atzean.

- Tra-ta-ta-ta...

Garrasiak itzaliz doaz... Garrasiak amaitu dira. Gure aurretik lau gizon pasa dira eta guztia isilik gelditu da.

Zarata beldurgarri batzuk sartu berri zaizkit belarrietatik eta gorputzean barrena bihotzeraino heldu zaizkit. Malko bat jausten ari zait masail arteko haran txikitik. Aitak begiak itxi dizkit. Horrela gelditzeko esan eta garrasiak zetozen tokira doa. Eskuak begien gainean pausatutik ditut, baina behatzen arteko zirrikitu batetik aita makurtuta dagoela begizta dezaket. Buelta eman eta niregana dator,

dardarka, zuri-zuri. Hitzik esan ez eta kale-kantoiaren izkinaraino heldu gara. Aita alde guztietara begiratzeko ari da.

Ezkerretara lehen baino jende gehiago ikusten dut. Asko korrika dabilta alde batetik bestera eta hots beldur-garriek urduritasunez zipriztintzen dute airea. Han urrutian bi motatako jendea ikus dezaket: batzuek, itxurarengatik, aitak hainbestetan aipatzen dituen soldaduak direla iruditzen zait, jantzi urdina dutela esango nuke, eta besteak, berriz, eguzkiak eta denboraren joanak higituriko arropekin dauden gizonak. Azken hauek dira pankartak daramatzatenak eta oihuka ari direnak. Oihu batzuek protestakoak dirudite, besteek, ordea, ezintasunaren seinale, eta nik, ezer ulertu gabe jarraitzen dut...

Ezkerretara hartu dugu, jende multzoa dagoen tokira. Inguruko ate guztiak itxirik daude, baita leihoak eta pertsiak ere. Zutik dauden palmondo eta zedro bakanek itxura tristea dute.

Jendetza korrika hasi dela iruditzen zait..., bai, horrela da, ehunka lagun gu gauden tokira hurbiltzen ari dira korrika bizian. Aitak besoetan hartu eta beste kale-kantoi batera sartu gara.

– Aita, zergatik gabilta alde batetik bestera korrika?

– Lasai, Samir, eskolarako bidea itxirik dago eta ahalik eta azkarren iristeko gabilta korrika alde batetik bestera.

Lasaitasun handia nabaritu dut nire barruan, lehengo kezka ugari argituak zaizkit, baina ez denak, aita inoiz ez bezala, urduri sumatzen dut.

Kale estu honetan barrena goaz. Hemen ere, beste ibilbide guztian bezala, dena itxirik, ilun eta isilik dago. Hala ere, ez oso urrun, buila eta zarata ugari entzun ditzaket.

Beste kale batera atera gara. Hemen guztia hutsik dago, oihu eta garrasiak ia itzalirik daude eta isiltasunaren erreinuan murgilduta aurkitzen gara. Kale hau ez da hain handia, espaloi estu bi eta bide bakarreko errepidea baitu; hala ere, ez da animarik ageri...

Aitak eta biok aurrera jarraitzen dugu, pauso biziz, geldiunerik gabe. Urrutian gauza beltz batzuk ikus ditzaket. Nahiko lasai baina etenik gabe datozela iruditzen zait. Horrela da. Aitak berriz ere besoetan hartu eta lehen egon garen kale-kantoirantz goaz atzera. Iluntasuna are astunagoa bilakatu da, eta oihu eta garrasi ozenak inguruaren jabe egiten ari dira. Aita izkina batean dago kale estura begira, dardarka dagoela nabari dezaket, eskolarako bidea... eskolarako bidea... ez dakit. Baina zer izan daiteke? Nagusien kontuak dirudite, nik ezer ulertu gabe jarraitzen baitut. Horrelakoak telebistan-eta bakarrik nituen ikusiak.

Aita nigana dator, poliki, mantso. Keinu batez zakarrontziaren atzean jartzeko esan dit. Nik kasu egin diot. Ontziaren atzean babesturik aita, berriz ere, izkinara doala ikusten dut; gainera ahots batzuk entzuten dira. Badator aita, burua jaitsarazi dit, eta geldirik gelditu gara biok, elkarri begira, baina hitzik esan gabe, hinkatekorik atera gabe.

Lagun taldea hurbilduz doala nabari dezaket, urduritasunak gogorki astintzen du nire bularraldea. Aita ere berdintsu dago. Gaur, inoiz ez bezala, hirugarren aldiz itxiarazi dizkit begiak, inguruan gertatzen denetik aislatuz, babestuz.

Zakarrontzi zaharraren azpi aldeko zulo zulatutik lau gizon armatu direla ikus dezaket, dotore jantzita daude eta eskopeta handi eta arraro batzuk dituzte eskuetan. Kale-

kantoiaren amaieran pilaturik dauden kartoizko kaxa batzuetan eseri dira, eta hizketan hasi dira. Ezin dut ulertu esaten ari direna, beste aldetik datozen zaratak gero eta indartsuagoak dira, ez didate entzuten uzten.

Haiengandik ihesi, aitak besotik helduta, arrastaka goaz biok lur zikin eta zurrun honetan barrena.

– Klonk!

Lata batekin egin dut estropezu, belaunean min hartu dut. Normalean izaten den zarata eskas horrek belarria lehertu didan sentsazioa egin dit. Burrunba ikaragarri bat egingo balu bezala, kale-kantoiaren jabe egin da. Aitak besoetan hartu nau eta salto egin dugu kontainer baten barrura; ahal bezain azkar kartoiaz eta zaborraz tapatu eta isilik gelditu gara.

Nire bihotzaren taupadak besterik ez dut entzuten. Orain pauso batzuk. Pauso zakarrak, pisutsuak dirudite.

– Pun!

Burrunba ikaragarria belarrietan. Pausoak gure inguruan bueltaka dabiltzala iruditzen zait. Zarataka dabilta lau gizon horiek. Haien builak urrunduz doaz, urrunduz, isildu dira.

Jarraian zakar ontzitik atera eta jendetza dagoen kalera narama aitak besoetan. Ahalik eta zarata gutxien atereaz, isil-isil, baina pauso azkarrean.

Kale handira iritsi nahi du aitak, jendea dagoen tokira, baina ezin. Soldaduak daude alde batean, zarataka dagoen jendea bestean; haiek tiroak nornahiri, hauek harriak haiei, eta gu, erdi-erdian. Ez aurrera, ez atzera, kale ertzean gelditu gara, inora gabe.

Han urrunean, soldadu bat, bere armarekin gu apuntatzen ari dela ikus dezaket. Buila eta zarata guztien artetik aislatuta gelditu naiz. Burrunba geldiezin bat nabaritzen dut buruan. Gizonak dardara egin du, eskopeta mugitu eta bertatik zerbait atera da. Aitaren garrasi ikaragarriak bihotza alde batetik bestera zeharkatu dit.

Aita lurrean ikusten dut. Begiak zuri, ezpainak more, aurpegi zarpaildua, ahotik odola dariola. Besoa luzatu dit ezinean eta hartu egin diot. Eskua dardarka du, ez da gai nireari eusteko ere.

Bestelako zasztada bizi sarkor batek zeharkatu dit gorputza, min ikaragarri minbera batek trabestu bihotza, eta tristurak lehertu dit arima.

Begiak lausotzen ari zaizkit... Aitaren aurpegia ikusten ari naiz aurrean, begiak gero eta lausotuago, aitaren irudia ezabatzen... Begiak guztiz lausotu zaizkit.

Bion eskuak elkaturik, gure lurralde honetako zoru zurrun eta kiskalian gelditu gara hilotz aita eta biok.

Ez dut deus ulertzen.

Zuk uste ametsak bete daitezkeela?

Ane Arregi Lopez
Arizmendi ikastola
Arrasate

Altxatu, Karla, ez da ezer, zure negarrek ozpina dirudite nire zaurietan sartzen. Ez zaitez arduratu, aurrera egingo duzu, ausardia horrek goraino eramango zaitu. Bakardadea, hala ere, hain da tristea, hain mingarria. Arrazoi du etxearen jabeak, ez daukazu dirurik etxea ordaintzeko, ez ezazu horretan erabili, janariak garrantzi handiagoa du. Amak eta aitak utzi ez bazintuzte, zoriontsu biziko zinateke hiriaren erdian, bertako eskolarik garestienera joanaz eta 17 urteko neska “ñoña” baten tankeran jantzi-az. Baina zenbat gauza ikas zenitzake kalean? Bai, arrazoi duzu, gizon hark ez zukeen mozkorturik gidatu behar, agian berak izan zuen errua, edo... ze demontre! Baliteke zu zeu izatea errudun bakarra. Ez bazina etxean negarrez hasi beraiekin egon guran, ez ziratekeen zuregana joango eta gaur ondoan izango zenituzke, bakardade mingarri honetatik urrun. Ez egin jaramonik, jo aurrera, hartu soinean daramazuna eta beharrezkoa. Hori da! Erakutsi iezaiezu aurrera egiten laguntzen dizun irribarre hori. Segi, segi, ez gelditu!

Eta orain zer? Bakarrik nago hiri madarikatu honetan berriz ere, oraingoan Ana galdu dut; Ana. Munduan gehien maite nuen pertsona. Bera izan zen aurrera egiten lagundu zidana. Zortzi urte besterik ez nituenean iluntasunetik ateratzen lagunduz. Ni baino bi urte gehiago izan arren bakarrik bizitzera ohitua zegoena. Higuingarriak, gogaikarriak, nazkagarriak eta gorrotagarriak iruditzen zaizkit zakila edozein lekutan sartu nahi duten horiek, gizonak direla argi utzi nahi dutenak, denaren gainetik emakumeek beraiek nahi dutena egin behar dutela iritzi-tzat duten gizonak. Ez da harritzekoa indarra erabili behar izatea emakume batekin sexu harremanak eduki ahal izateko. Nork maitatu lezake tankera horretako gizaki bat?

Nor ausartuko litzateke bere alboan egotera? Ana ausartegia iruditu zitzaidan arriskuaz jabetu ahal izateko. 40 bat urte izango zituen zerri hark, urradurak jotako neska gazte bat "autoestopean" ikustean, nola ez, barrura gonbidatu. Zergatik ez zitzaion partxisean jolastea bururatu? Orain kartzelan usteltzea dauka! Ongi merezia! Hala ere horrek ez dit nire laguna ondora ekarriko. Hoberena zubi-azpi honetan lo egitea izango da, beharbada bihar goizean mirari batek iratzartuko nau.

Ai, Karla! Zer egingo nuke nik zure lekuan? Ez dakit. Poliki eta pausoz pauso denaren gainetik bizi nahi duzu eta horrek indarra sor dezake. Izan zaitez kementsu, zirika ezazu bizia, berarekin ahal duzula adieraziz. Egun ona atera zaizu, baina, hala ere, hilabete daramazu kalean eta jateko lain justu-justu daukazu, jada arropa horiek zikin dituzu eta dutxa bat ez litzaizuke batere gaizki etorriko. Apal ikus zaitzaket, bukaera noiz helduko zain. Lasai, zoriona hor nonbait zure zain daukazu, bertan geratuko da zure irribarrearekin topo egin nahian, eman iezaiozu aukera bat. Itxaron, itxaron, itxaron...

Atzo ezagutu zenituen lagun horiek jatorrak dirudite, baina bizitzeko duten era ez da hain erakargarria. Baliteke beharragatik beraien gorputza saltzera iristea edo inguru-neak horretara behartu dituelako. Dirua erraz lortu zenezake mundu horretan, zeuk ikusi. Eskale lanek ez dizute ezta zentimorik baliogabeena ere eman. Baina bizitza deitu al diezaiokezu aurrean daukazunari? Begira amildegi hori, erakargarri azaltzen da zure begi gazte eta dizdiratsuetan. Begiak itxi ditzakezu, haizeak gorputza nola inguratzen dizun igarriz, pentsamenduetan murgilduz eta ideiak ahal den neurrian bere tokian jarriz. Salto egitearen ideiak gorputza uzkuratzen dizu, pisutsuagoa balitz bezala, behera

bat-batean heltzeko irrikitan. Pinpilinpauxa baten lez hegan egin duzu orain arte gora eta behera, norabide zuzena lortu ezinean. Hegalak bustiak dituzu orain, eta geldi itxaron beharra sentitzen duzu, noiz lehortuko zain. Zergatik ez salto egin? Guztiarekin bukatu? Bizitza honi agur esatea ez da oso zaila izango, ezta?

Hain izango litzateke erraza, pauso txiki bat eta akabo, akabo bakardade hau, akabo barruan daukadan samina, akabo behin eta berriz putzuetan sartu izana. Hala ere, nork dio egunen batean zoriontsu izango ez naizenik? Nork dio zulo honetatik irtengo ez naizenik? Bai, hori da, otsoaren ahoan sartu behar banaiz, hala egingo dut, aurrera joko dut, nire hegoak lehortu eta hegan egin dezadan itxaron egingo dut. Ziur nago egunen batean, ez hemendik gutxira, nire mundua suntsituko dudala, baina oraindik aurrera egin nezake.

Auskalo zer ibili zinen pentsatzen amildegi horren aurrean zutik, tinko, baina hartu zenuen erabakiak ez nau guztiz konbentzitzen, baliteke daramazun bizitza erakargarria iruditzea, esperantza zati bat barruan mantentzea. Nik ez dakit nondik arraio atera dezakezun kemen eta indar hori. Zaila eta gogorra da aukeratutako irtenbidea eta trabatuta bide erdian gelditzeak ez ninduke batere harrituko.

Ez ahaztu dirua eskatzea, beti nazkagarrienetatik nazkagarrienak azaltzen zaizkizu. Hiru hilabete igaro dira jada eta diru kontuek eskas jarraitzen dute, ez zaitez mundu beltz horretan gehiegi sartu, irteera urrun geldituko zaizu eta. Hori da! Itxi itzazu begiak, aurrean daukazuna higuin-garria gerta dakizuke eta.

Ah! Aitona honek indarra du gero, a zer nolako mina ematen didan. Hala ere, barruan sentitzen dudana mina

gogorragoa da, bakardade honek barnetik suntsitzen nau. Ongi da, aski izan du gaurkoz! Gehiago, gehiago dio, a zer nolako kabroia, ordain dezala! Bi hilabete barru bide honetan jarraituz gero, arropa berria eta dotorea lortzeko haina izango dut eta baliteke horrek lan hobeago bat lortzen laguntzea. Begira, aitona, nahikoa izan duzu gaurkoz, utz nazazu bakean eta joan zaitetz amonatxoarekin amets goxoak egitera. Burugogorra dirudi honek, ez da nekatzen. Ah! berriz ere. Alde hemendik! Zure esku hezurtsuak nire bizkarra urratzen hasiak ziren.

Zein ederra zauden soineko berri hori aldean duzula. Belaunetatik beherakoa da oraingoan behintzat. Motelean lo egiten jarrai dezakezu zerbitzuak eskaintzearen truke, orain arte egin duzun bezala. Badakit hogeit bat leku bisitatu dituzula eta ez duzula lanik aurkitu, agian beste batean.

Hilabete lan bila eta ezer ez. Hala ere, dirua aurrezten hasi zinenetik aurrerapenak badaude. Ez zaitetz gero orain amildu. Beste aukera bat daukazu, ekin bideari.

Azaroak 15. Nire urtebetetzea. Bakarrik igarotzen dudan lehen aldia da, ez diot inori kontatu nahi izan, ez daukat zer ospatu, bizitza hobea ez dela helduko pentsatu baitut jada. Nahiago izan dut kanpotar honekin dantzan egin Karibeko doinu gozoak dastatuaz. Ez dugu ezer egin, ondoan gelditu zait mozkorraren eraginez, ume txiki bat bailitzan, lo. Berari nire urtebetetzea zela kontatu diot eta entzun nauen norbait sentitu dut aspaldiko partez. Agian ez da konpainiarik hoberena izango, baina bere berotasunak bakarrik ez sentitzen lagundu dit, berriz ere esperantzaren garra barruan sentiarazten.

Nork esango luke, zu ikustean, hain gaztaro gogorra izan zenuenik? Arropa dotorea, markadun makilajea, 28

urte soinean, gorputz ezin hobea, irribarrea ezpainetan, 2 urteko semea alboan eta zure adin bereko enpresari batekin ezkondua, diruduna mutila eta, ikusten zaituen bakoitzean, lerdea dariola zure atzetik dabilena. Zer gehiago eska zenezake? Zorionak, Karla! Zuk nahi zenuena lortu duzu, batez ere bakarrik ez egotea. Orain dela 3 urte maitasuna egin zenuen lehenengo aldiz, maitasuna. Zorionak zure ametsetako etxeraino eramán zaitu, ez da hala, Karla?

Oroitzapenen garra

Jokin Benavides Otsoa-Aizpurua
Lizardi institutua
Zarautz

Gaur euria ari du, barra-barra. Guztia dago bustia: tei-latuak, parkean jolas egiteko zabuak, hondartza, haizea, itsasoa. Eta nik ez dut zure irriaren oihartzuna entzuten. Eguraldiaren antzera triste nago, goibel, ilun. Luma bat hartzeak lasaitu eta gertakarien gainean hausnartzera bul-tzatzen nau. Ez dakit jada zer idazten dudan, luma nire hatz artean dantzan ari baita, askatzen duen tinduak hizki itxu-rako iruditxoak marrazten dituen bitartean.

Gogora ekarri dut zurekin igaro nuen azken eguna: Kontxako pasealekuan hegalaria, Granadako Alhambran zelatari, Saharako belardietan ameslari, Txinako Harresian gerlari. Zuhaitz baten babesean etzanda, bere hosto dantzari-ek ezkututzen zuten ilargiaren silueta asmatu nahian, zure ezpain hezeek nire masaila laztantzen zuten bitartean. Hondartzako olatuen aurka borrokan, itsasoak lapurtu ziz-kigun arropa urrien bila. Eiffel Dorrean abeslari, Tibeteko amildegietan margolari, Amazonas oihanean ikerlari, Nor-vegiako fiordetan maitale.

Leihotik begira jarraitzen dut. Euri tanta mardulek lurra ziztatzen dute, eta hau, ahulduta, babes bila dabil, ezkuta-tu nahian. Emakume gazte baten gorputz liraina gordetzen duen aterki urdin bat ikusten dut. Ile kizkurreko gizon argal bat dauka atari baten estalpean zain. Elkar ikusi dute-nean, bien aurpegietan irribarre argi bat piztu da. Argi eta garbi dago: elkar maite dute. Etxean sartu dira, pot ezti bat trukatu ostean. Zu eta ni, maite, horrelakoxeak ginen: xaloak, arruntak, alaiak, benetako maitaleak, azken batean.

Baina ziur naiz ahantzi dituzula dagoeneko garai haiek. Egunak, musu goxoz blai, itsasoaren melodia usainduz eta bere esentziak entzunez igarotzen genituen, elkar maitez. Gogoan dut zure begirada, sakon eta gardena, musu bat emateko eskatzen zenidanean. Nik, oraindik, neure oroi-

menean tatuatuta dut mila bider maite zintudala esateko erregutzean eskaintzen zenidan aurpegiera bihurria. Nire fotografia bildumaren atal pribilegiatuan gordeta ditut Argentinako panpan etzanda, Indiako hirien zurrunbiloan galdurik, Loirako gazteluetan besarkaturik, Ozeano Bareko uharteetan biluzik ateratako argazki bikainak. Ez ditut inoiz beste maitasun baten sutara botako. Irudimeneko altxorren kaxan ezkutatuko ditut Siberiako izotz artean bero, Peloponesoko mahastietan maitasunez mozkortuta, Kaliforniako hondartzetan bustita, izara arteko paradisuari itsututa agertzen garen irudi haiek.

Zoritxarrez, gauzak asko aldatu dira. Jada, zure ibilerak ez nau urduri jartzen; jada, zure mihiak ez dizkit kilimak egiten; jada, zure fereka leunek ez dute gorputz guztia zeharkatzen didan zirrara sortzen. Egia esan, orain aurkeztu dizkidazun begirada eta irria ez dira garai batekoak bezain zintzoak, berezkoak. Lehen, ezagutzen zintudalakoan nengoen, eta beti, ustekabean, harri eta zur uzten ninduen zeure alderdi berri bat erakusten zenidan. Gaur, aldiz, ez dut zu ezagutzeko grinarik, hain urrun sentitzen zaitut! Aspaldi desagertu zen zure aurpegitik bizirik mantentzen ninduen imintzio bihurri eta jostari hura.

Oroit zaitez, maitea, Nilo ibaiaren deltan naturak guretzat soilik eskaini zigun antzerki paregabeaz: eguzki erraldoia itsasoan bainatzen zen, bere kolore gorri argiak salatzen zuenez, lotsa-lotsa eginda, hegazti zuri batzuek ipurtargiz betetako oihal ilun bat zintzilikatzen zuten bitartean.

Edo, gogora dezagun bestela Mato Grossoko mesetan igarotako goiz hura. Ozar-izar ikusgarri bat behatzen ari ginela nola ikusi genituen ilargi eta eguzki maitekorrak jolas isil bezain desioz beteriko batean. Gero, ilargiak, haserre, goiz argi hartan eguzkiak igortzen zizkigun izpi

indartsuen bidea oztopatu zuen, minutu gutxi batzuez gaua jaurtiz Lurrera.

Zenbat momentu zoragarri igaro ditugun, genituen elkarrekin!

Nigandik bizpahiru metrotara zaude, amets zoriontsuz josita dagoen lo sakon batean murgildurik, baina hain urrun nabari zaitut! Orain, zure bihotzaren taupaden hotsa monotonoa iruditzen zait, metronomo baten tik-tak astuna baino aspergarriagoa. Zure eta nire arteko maitasunaren ilintia behin-betikoz agortzear dago, etengabeko euriaren laguntzaz.

Garai batean zenuen lupu zirraragarri hura ere, goitik behera erortzen den uraren antzera, usain, kolore eta zapore gabea bilakatu da. Zure masaila zuriek zuten grazia airean lurrindu da, zure gari koloreko adats askeen dantza arina ahitu den bitartean. Zure aho xarmantak jariatzen eta ezpain gorriek bideratzen dituzten hitz leunek ere ez dituzte jada ene belarri finak ferekatzen. Zure gerri panpoxaren mugimendu azkarrak ere inolako magiarik askatzen ez duten mugimendu hutsak bilakatu dira.

Baliteke mundua txikiegia izatea gure irudimen apeta-tsuen jolas amaigabeentzako. Agian, mundu guztia arakatu dugu elkarrekin eginiko bidaia ugarietan. Horrela bada, errepika ditzagun bidaiak. Gustura oparituko nizuke zure urtebetetze egunean beste tulipa gorri bat, horrela, Herbeheretako zelai koloretsuetara berriz bidaiatzeko eta errota sendoetako txoko xume batean lo egiteko. Edo, bestela, arrantza ditzagun gure oroitzapenen itsaso zabalean gorde-ta ditugun gomuta ugariak. Bidaia dezagun berriz Vienako jauregi, Mexikoko piramide, Irlandako zero gris hodeitsu edota Kilimanjaroko elur gozoetara. Gal gaitezen beste

behin Tailandiako merkatu jendetsuetan, ez ditzagun ahan-tzi Kanadako urjauzi emaritsuetatik eginiko jauzi ikaragarrak...

Mesedez, gure irudimen aseak ez gaitzala aldendu. Saia gaitezen gure arteko irrika, desioa berpizten. Bestela, elkarrenganako gure amodioa hil bada dagoeneko, lurpera dezagun lehenbailehen.

Nik, aldiz, ezin uler dezaket nola zimeldu den geure maitasuna, nola herdoildu den gure arteko desio bizia. Ezin konpreni dezaket gure arteko urruntasunaren zergatia, polo berdineko bi imanen gisara, oso antzekoak izanik, bata bestearengandik hain urrun gaude! Orain, zoritxarrez, bakoitzak norberaren errekarra isuri ohi ditu bere malkoak, sentimenduak, ideiak nahiz irribarre urriak, eta garai batean elkarrekin sortu genuen ibaia lehor dago, Lurraren antzera, gure artekoak bizi duen basamortutze-prozesuaren ondorioz...

Txori txiki bat leiho ondoan, nire parean, pausatu eta ene hausnarketa eten du, modu txit atseginean. Une labur batez, aurrez aurre, gure begiradek topo egin dute, eta ene egoera tamalgarriaz jabetu izan balitz bezala, abesti malenkoniatsu bat eskaini dit. Gero, hegaldi bizian urrundu da, eta bere zantzua jarraituz laino ilunen atzetik irteten ari zen eguzki indarberritua ikusi ahal izan dut. Jarraian, betazalak zabaldu dituzu, horrela, garai batean bezala, zure bihotz irribarretsua behatu ahal izan dudalarik putzu garden bat dirudien zure begirada sakonean islaturik.

Orain, berriz ere, bion irudimenen laguntzaz munduan zehar bidaia ahaztezin gehiago egingo ditugulakoan nago.

Ilberri gauetan...

Maite Mendizabal Alberdi
Arizmendi ikastola
Arrasate

“Ostiralean kimikako azterketa eta gaztelerako liburua-
ren fitxa, etzi gizarteko azterketa eta etikako lana eta bihar
ingelesko proiektuaren aurkezpena eta euskerako ipuina...
Bihar ezingo duzu entrenamendura joan... Non ostia sartu
dituzu giltzak? Kaka! Ahaztu egingo zitzaizkizun... Espero
etxean norbait egotea, bestela portalean euskerako ipuina
idazten... Baina... zeri buruz? Ya te vale, ez duzu oraindik
lerro erdi ere idatzi. Rgrgrgrgrgr...! Ama, zabaldu! Jode,
hemen bai ondo! Kanpoan egiten duen hotzarekin! Qué
cutres diren igogailu ziztrin hauek! A ver jaietan ze egural-
di egiten duen... zapatu honetan guay pasatu zenuen,
Mirentxurekin egon zinen ia gau osoa, je, je... Seguru
gorri-gorri jarri zarela... DIN! DON! *Hola! Bai! Ez! Eus-
kerako etxekolanak egitera!* Jode, hemen egiten duen
beroa! Bo, listo! Ai, kaka! Estutxea ohe gainean utzi duzu.
Bo, orain bai. Zeri buruz, zeri buruz... oinetakoak kenduko
ditut, zeri buruz, zeri buruz... mahai hau oso txikia da, ez
zaizkit liburu guztiak sar... zeri buruz, zeri buruz... amaie-
ra sorpresiboa... gaur ze ilargi dago?... zeri buruz, zeri
buruz... zenbat izar...! Baina ez dago ilargirik, ilberri. Ai,
kontzentratu. Zeri buruz... Zer? Ai, ama! Gauzak imajina-
tzen hasi zara dagoeneko? Ai, ama! Zein ostia ari zait
deika? Ondo da, ondo da, leihora irtengo naiz, baina
IXILDU! Txora-txora eginda hago, txikito! Zer? Ipuin bat
daukazula niretzat? Bai, bai... Kontatu”.

Nora begira, baina? Hemen, urrunean, dizdira gutxien
duen izarra...! Bai, ni, bai. Beno, hor noa: Aspaldi, izarra
beltz honetan ezer gutxi zegoen garaian, iluntasun itxiaren
menpe bizi ginenean, ixiltasunak txoko guztiak miatzen
zituenean... izar bakarti bat besterik ez nintzen. Basamor-
tuan galduriko lore gaixoaren antzera hara eta hona, argi
izpi txikienaren atzetik aritu ohi zena. Sekula ahaztuko ez

dudan gau hartan, ordea, errainu leun bat jaio zen ikusmugan, bere berotasun goxoaz hipnotizatzen ninduelarik.

Poliki-poliki, ni baino txikixeagoa izan arren, izotzaren argitasuna baino dizdira intentsuagoa zuen zilar txatal eder eta lirain bat ozta-ozta ikusten hasi nintzen. Orduan sentiturikoa ez nuen oraindik ezagutzen. Barnea berotu eta sutan jartzeko gogoa piztu zitzaidan, berehala ixildu eta, hagitz urduri, ixilik eta geldi egotea hobe izango zela pentsatu nuen arte. Argi zuri hark nire zentzumen guztiak liluratu zituen, aspaldian iluntasunean gorderiko aurpegi garratz eta goxoenak agerian utzirik.

Bat-batean, printzek jada itsuturiko ene begi txikiak zabaltzea ezinezkoa zitzaidan bitartean, ea nor nintzen galdetu zidan, ahots eztsu bezain lasaiaz. Instintiboki erantzun nion hor zehar galdurik urteak zeramatzan izar bat besterik ez nintzela, bera bezalako norbaiten bila hara eta hona ibilia.

Ez nintzen pentsatzeko gai, ez nintzen burua garbi mantentzeko gai, are gutxiago kirioak lasaitzeko. Burura zetorkidan guztia birritan pentsatu ezin nuenez, txorakeria ugari bota nizkion printzesari, ILARGIARI.

Ez dakizu nola maitemindu nintzen, txikito! Zer nolako zirrarak astintzen ninduen beragan pentsatze hutsaz. Hala ere ezkutuka ibili behar izaten nuen Ilargiari bisita egitera joateko orduan. Gauaren erreinuko erregea, ene Ilargi maitearen aita, lotara joan arte itxaron behar izaten nuen, izan ere, alaba bakarra zeukan eta honi hoberena eskaintzeko prest besterik ez zen egoten, eta... izarrak ez omen gara aitonen seme...

Eguzkiaren arnasa lasaitzen zenean eta bere izpiak otzan, apal eta xume hedatzen zirenean, eguzki *txit gorena*

lo zela sumatzen nuenean, Ilargiari hurbiltzen nintzaion, mantso-mantso, ene barreneko egonezinak disimulatu nahirik, eragiten zidan zirrara ezkutatu nahian... gau hartan bertan esan nizkion esan beharrekoak eta, azken egunetan ez bezala, aske sentitu nintzen, berriz ere ene arima eta gorputzaren jabe. Gogoan ditud oraindik ia konturatu ere egin gabe nire ezpainen esan zituzten hitzak.

Jakingo ote berorrek,
ulertuko ote,
ene bihotza astintzen,
kolpatzen, berotzen,
gar eta sutzen,
duen hau?

Berorrenganako maitasun
sutsu eta bortitza liteke,
berorrenganako maitasun
txiro eta lotsatia agian,
berorrenganako maitasun
xamur eta goxoa ere...

Maite nuen, bai, gauaren iluntasunean preso zegoen argiz lepo eginiko oasi antzeko hura! Zer? Berak zer zioen? Ba, bai. Berak ere gogoko ninduela aitortu zidan nire ezusterako eta... nola azaldu une hura... egarri izan eta urez gainezka iturri bat aurkitzearen pareko, sutan egon eta elurretan etzatea bezala, maiteminduta bizi eta maitatua izatea...

Gauero, ilunean ezkutatu eta biok elkarrekin aritu ohi ginen, orduak minutu eta minutuak segundotara murrizten ziren bitartean. Hala ere, une ahaztezin haiek beldur jasangaitz batek zipriltintzen zituen uneoro, Eguzkiarenganako beldurrak. Zer? Jo, mutil, ez zara ezertxorekin geratu ala?

Bai, Eguzkia, erregea, Ilargi printzesaren aita zen eta ez zuen nahi izaten izarrak bere alabatxoarekin ibil zitezen. Ulertu duzu orain? Adi egon gero, ni ez nago hemen dena birritan errepikatzeko, aditzen?! Joateko ordua laster iritsiko zait.

Esaten ari nintzena, ezin hobeak izan ohi ziren gau haiek, Eguzkia zerbait susmatzen hasi eta biok batera harrapatu gintuen arte, ai ene! Eskerrak Ilargiari! Berak erregutu zion Eguzkiari han bertan, momentu hartan hil ez nintzan, bere bizia ere jokoan jarritz. Aitaren bihotz gogorra xamurtu zuen dirudienez, eta bizia barkatu zidan, handik urrun, isolatuta eta bakarrik betiko bizitzearen truke.

Berriz ere bakarrik, goibel eta ilun. Maitemindurik nengoen, bai, baina hura ez zen, ez, hasieran sentitu nuen poza. Atsekabeak gordinik jaten ninduen, azala urratzen zidan, erraiak ere agerian utzirik. Negarrez igaro nituen hurrengo gau eta egun oro ene azken malko txikiena ere infinituan nola desegiten zen ikus nezakeelarik. Bakardarearen itzal amaigabe hau gainetik kendu ezinean, Ilargiaren isladak alde guztietan asmatzen nituen, nire burua zigortzera bultzatuz, nire burua errudun sentitzera behartuz.

Ez nintzen ni, ordea, gaizki pasatzen ari zen bakarra. Urrunean, infinitutik harantzago, Ilargia aurkitzen zen, hits, betilun, makal eta ezertarako kemenik gabe. Bere aitak printze batekin ezkontzera behartu zuen, zuek bizizareten harri pusketa zikin horrekin, eta bere ondoan betiko izatera kondenatu zuten. Bestalde, Eguzkiak zerua izarrez josi zuen, soldadutzat hartu zituen, Ilargiak ihes egin ez zezan, espetxe hartan iraun zezan betiko, inola ere maite ez zuen printze haren ondoan kateatuta.

Ezin nuen bera ikusi, baina bere bihotz taupadak nireekin bat eginda sumatzen nituen, nireak soilik bailiran. Gauero negar malkotan itotzeko nahiak oso-osorik menperatzen zuen, eta hauen garraztasuna niganaino iristen zen, laguntza eske deiadar gazi bat inguratuko balitzait legez. Nik, ordea, ezer gutxi egin nezakeen, nire nahiekin aurrera egiteko gauza ere ez nintzen kasik.

Ixo!!! Orain dator hoberena eta berandutzen ari zait! Zuk arretaz entzun, gero idatziko duzu idatzi beharrekoa! Non nindoan? Ah, bai! Nik itxaropen izpi oro aspaldi itzaliak nituen eta zerbaiten zergatiaren bila pasatzen nituen orduak, azkenean erantzunik inoiz jaso ez arren. Kontua da esperoan emandako betikotasun latz haren ondoren, gutxien espero nuenean, horren maiz amesturiko berotasun goxo ezagun hark harrapatu ninduela. Begiak zabaldu eta Ilargiaren silueta bereizi nuen niganantz zetorrela. Egia zen, ez zen islada faltsu horietako beste bat, bere usaina ere antzematen nuen. Laster bizian beregana joan nintzen, ikusten nuena ezin sinetsita. Mila laztan eta mila losentxaren ondoren, ea niganaino nola heldu zen galdetzean, pozarren, soldadurik gabeko pasabide bat aurkitu zuela esan zidan, hilean behin etorri ahal izango zela niri bisita egitera. Gau hura ezin ahaztuko dut sekula. Han aritu ginen gau guztia hara eta hona, elkar ezagutu genuenean bezala. Ia ahaztua neukan zorientasunaren besarkadaren berotasuna, maitasunaren zapore goxoa. Ordu atseginak pasa nituen, alajaina! Dena dela, Ilargia ez nuen berdin sumatzen, bere argi-izpi guztien artean printza dizdiratsuenaren hutsa sumatu nuen, Ilargiaren zorientasunaren printza alegia. Orduak igaro eta etxeratzeke ordua iritsi zitzaiola esan zidan. Zer gertatzen zitzaion behin eta berriz galdetu ondoren, printze nazkagarri batekin gogoz kontra ezkondu zute-

la aitortu zidan, inoiz maite izan ez zuen eta maitatuko ez zuen printze harroputz eta bihozgabe batekin. Eguzkiarekin hitz egingo nuela esan nion printzesari, gorrotoak itsuturik, erregearen aurka lehiatuko nintzela hitzeman nion... Berak horrelakorik ez egiteko eskatu zidan, bere aita zerbaiten jakinaren gainean egonez gero, biok hilko gintuela. Hala, bada, hurrengo hilean elkar ikusteko esperantzarekin agurtu ginen. Hala jarraitu dugu ordutik, eta asko ez den arren, bizirik irauteko gogoia pizten didan gauza bakarra da. Beno, orain joan beharra dut soldadu hauek ni ikusi baino lehen; gainera, hilabete itxaron ondoren, hitzordua dut zilar txatal eder eta lirain batekin, konturatuko zinen ilberri gaua dela.

POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Sagar bihotzak sagar begietan

Odei Arregi Izagirre
Ikasberri ikastola
Azpeitia

Jan itzazue
sagar guztiak,
haziko zaizkizue harrak
tripan.
Eta botako dituzuen
oihuak, garrasiak
berdeak izango dira etorkizunean.
Jan, sagar denak.
Jan eta ez isildu.
Jaurtiki oihu, garrasi
luzeak, berdeak,
luzeak, biziak.
Nik zuen bihotzak
jango ditut gero.
Sagar formako bihotzak,
nire sabeleko harrek
bizilekua izan dezaten.
Nik inoiz izan ez dudana.
Oh, ez lotsatu,
niri berdin zait
sagar garratzak jatea,
ez naiz milizka.
Ez saiatu poesia leitzen
bihotzak gozatzeko
gaur, poesia ozpindua baita.

Baina lasai, gose garenean zaporeak
ez du hainbeste garrantzi.
Zuek ez zenekiten hori, ezta?
Irten kalera, ba!
Egin so!
Zulo ilun horri,
norbaitek etxe, jantoki
deituko dion kale zulo beltzari.
Zuen bihotzak menu berezi gisa
hartuko ditugu,
platano azalez apaindurik zerbitzatuko.
Eta sabeleko harrek
eskertuko digute,
ez dizkigute erraiak
gehiago jango,
sentimendu onak ere
odoletan itotzerainoko
zauriak sortuz.

Zuen sagar bihotzak behar ditugu.
Horregatik ez dizkizuegu jada
sagastietako sagar
gorri, berde edo ustelak berdin
lapurtzen.
Zuentzat dira guztiak.

Jan, ase eta gero ere,
jan lehertu arte
eta gehiago ezin duzuenean
guk sartuko dizkizuegu sagarrak
ahoko zulotik
eta zintzurretik behera
pasatzen lagunduko
zuek gure haurrak
moretzeko erabilitako
makila odolduekin,
zuen bihotzak (dituzuenonak)
sagar bihurtzeraino,
beteko zaituztegu,
munduko sagar guztiak
agortu arte,
zuen bihotzak sagar bihurtzeko
beharrezkoak baitira
horiek guztiak eta gehiago.
Eta egunak gau bihurtuko dira
eta gauak egun,
eta hamabigarren orduak eroriko dira
eroritako hamaikagarrenen gainera.
Eta azkenean
esnatuko zarete

zeuon sagastian
zeuon sagarrondopean
zeuon eskopeta eskutan
eta ikusiren duzue
belauna urraturik duen mutikoa
golkoa
zuen sagastiko
zuen sagarrondoko
zuen sagarrez betea
ihesi
kaleko zoko beltzera
bere etxera, jatetxera
harrei jaten ematera
bihotz itxurako sagarrak golkoan
ikusiko nauzue.
Mirilatik begiratuko
diazue, didazue,
eta mutikoak, nik,
ez dut sekula jakingo
tiro egin didazuen
ala
harrek jan didaten
azken bizitza,
sagar puska.

**Azazkalak jan nitueneko
bost hondar aleak**

Miren Rubio Iturria
Talaia institutua
Hondarribia

HONDAR ALE BAT

Erlojuaren galaxiaren erdian
lurra eta denbora zulo beltza.

Besoak zurrun zenbakien gainetik
soinu monotonoak
buruak leherraraziz,
zapalduak izateko beldurrez, dardarka.

Ardatzen haize korronte zirkularrak
irentsi egiten gaitu;
ertzetan
hirurogei azazkal marrako
ahantzitako oihuen seinale.

Joaten dena inoiz ezagutzen ez gaituena bada
aska ditzagun torlojoak,
haizeak eraman gaitzala
zulo beltzeraino,
denboraren urdaileraino,
infinituaren bukaeraraino.

BIGARREN ALEA: APUSTUAK ZABALIK DAUDE

Ihaurri mutanteak noraezean
kaxa prefabrikatuen artean
ziztu bizian bizitzaren zuloan,
gorrak,
emakume mutuaren aurrean.

Jaioberri hilak
Kokakola eta hanburgesen paradisuan
berpiztu nahi du,
bertan,
kukuaren habian,
bere buruaz beste egiteko.
Baina denborari berdin zaio, denak berdin dio.
Bere lasterketan jarraitzen du
ea noizbait
segundoak minutuei irabazten ote dien galdezka...

Guk geuk ere,
lasterketan parte hartu dugu,
gure etsaiei aurre egiteko prest.

Gaueko tximeletak autoaren kristalean bezala
segundoen eta minutuen azpijokoan nabigatuz goaz
ur-jauziraino

baina...

(denborak minutuak eta segundoak ezagutzen ote ditu?)

Apustuak zabalik daude.

HIRUGARREN HONDAR ALEA

Sehaska kulunkan

Aho bat, esku bat, sabel bat, bihotz bat, taupada bat,
intziri bat, esperantza bat, begirada bat, malko bat, zizare
bat.

Sehaska giza besoak kulunkan

Eztanda bat, sute bat, arroka bat, negar bat, oihu bat,
dar-dar bat, zain bat, hegazkin bat, bihotz bat, keinu bat,
lubaki bat, behatz bat, orro bat, lagun bat, begirada galdu
bat.

..xxxxx.... entzun umearen bihotzaren
tap-tap lasaiak.

LAUGARREN HONDAR ALEA

Sorginen eguzkiak esanarazten ditu
zementuaren lore zimelduenak

Kezko petaloak

Hotzezko izerdiak

Gomazko sustraiak

Lur eske noraezean
sasi-larreen ozeanoan.

Zeinen ederrak izango lirateke...

koadro lehorretan.

BOSGARREN HONDAR ALEA: Barne munduan

Udazkeneko haizeak
hosto bat lapurtu du
nire zuhaitzetik.

Eguzki epelean
kulunkan darama
zure buru gainetik.

Arre koloreko hostoa,
nora zoaz
udaberrian hain berde zinen
bihotz adarretatik?

Zelaiian pausatzera,
denboraren besoetan
lurrarekin bat egitera.

Begira nire adarrak
hezurretan hotzak.
Betirako luzatuko den
neguak
ez du izango arratsalde sargoririk
ezta ere nire zuhaitzak
itzalik.

Ihesean

Maite Uriarte Gil
Elgoibarko institutua
Elgoibar

He preferido la oscuridad
como penumbra salvadora, que andar,
errante, solo, perdido,
en los infiernos de la luz.

MARIA ZAMBRANO

Umeen kometek
sarraila bortxatzen diote
infinituari...

Gartzelako egutegia
zartatu egin du
inozentziak...

Eta ilargiak zilar malkoak
egin ditu
etsipenezko bolatxoak bailiren.

Isiltasun hertsian
nota bat
biolin betilun batetik zintzilik,
hasiz eta eutsiz,
luzea nahi duen oinazean;
alde egitea helburu,
pentagramako herio ziurretik.

Orduro zenbatutako urteen ostean,
unatuta dakusa gauaren bidaia.

Ametsetan bustia bai,
ekiak argituko duen seinale,
baina unatuta.

Denborak alokairuan utzitako epea
darabil arnasteko,
xedeak daramala irentsita.

Idazten dio,
isiltasuna zulatuz,
luzatuz askatasuna
bizigogoan.

Partiturei bizkar emanez ikusten du geroa,
ez zeru
eta ez infernu,
soilik entzuna izatearen bizia.

Bukaerak,
ez duelako puntu eta aparte idazten.

Bukaeran,
odolek, ahituta

zer arnastu alferrik bilatzen dutelako,
malkoen torturapean, itxaropenak
heriotza nahi duela aitortzen duelako.

Han,
izar berri bat
topatu uste izan zuen lekuan,
gaur,
zerraldo hilotzez betetako
hilobi bat aurkitzen du.

9 milimetrotako zaurietan dakusa bakea,
amets asko autoen gurpil beltzetan,
agonia asko desio banaletan
bituak.

Eta han,
bizi berri bat
topatu uste izan zuen lekuan,
gaur,
basati hutsez betetako
mundu zahar bat aurkitu du.

Hilzoria sinonimoen hiztegian,
bizitzarekin hobeto legoke,
edo helburuarekin.
Eta helburu, alde egitea.
Behin hasita,
eustea eta irautea.

Horrela,
isiltasun hautsien lurraldean,
iraupenaren utopia sutsuaren lozorroan,
askatasuna bilatzearen
aitzakia inozuez baliatuz,
notak ihesean jarraitzen du,
eta gauero lokartzean
ernai dakusa

ITXAROPENA!!!!!!!!!!

Itsasoratutako malkoak. Hitz izoztua

Oihane Jaka Irizar
J. M. Barandiaran lizeoa
Donostia

ITSASORATUTAKO MALKOAK

Malko bat ezker begitik,
Errealitatearen gazitasuna islatzen,
Bere gardentasunaren ispiluan.

Bigarren malkoa eskuin begitik,
Bilduta daramatza atsekabe guztiak,
Doluen zaku gorrotatua.

Hirugarren malkoa ezkerretik,
Ur-tanta madarikatua,
Saminen sortzaile eta itotzailea.

Laugarren malkoa eskuinetik,
Txikia bere esanahiaren handitasunean,
Txikia, handia baita bere ezintasuna.

Bosgarren malkoa ezkerretik,
Handia, gorroto txikienaren isla ere handia baita,
Olatuek ere hautsi ezin duten ur-tanta.

Seigarren malkoa eskuinetik,
Oroimenaren iturria,
Irekitzean ur berriak zaharrekin nahasten dituena.

Zazpigarren malkoa ezkerretik,
Zortzigarrenarekin elkartu da,
Ezker E

R

R

E

K

A

osatuz.

Bederatzigarren malkoa eskuinetik,
Hamargarrenarekin elkartu da,

Eskuin E

R

R

E

K

A

osatuz.

Ezker erreka,
Arroka sendoek oztopatutako ur-bidea,
Oroimenean galdutakoaren damu-garrasia.
Eskuin erreka,
Finkatu gabeko itsasora doan korrontea,
Etorkizuneko olatu zehaztugabeen misterioa.

Ezker erreka eta eskuin erreka
Itsaso berean hustu dituzte malkoak,
Iragana eta etorkizuna itsasoratzen diren olatuan,
Jasandakoek eta aurreikusi ezin direnek
bat egiten duten ur sakonean,
Ur gezak gazi bihurtzen diren itxurazko baretasunean.

HITZ IZOZTUA

Bihotz izoztua da nirea,
Odol-tanta beroak ahazturik,
Hotzentzat soilik du tokia.
Zure irudia sutan datorkit burura,
Eta berehala bihotzak izozten du zure begirada,

Galdua, gogorra, itsua bihurtuz.
Urak xahutu zuen zure arnasa.
Zure biriketan uholdeak eraginez,
Izoztu zuen zure bihotza.
Ur berbera saiatu zen nire arnasa ere itotzen.
Ez zuen lortu,
Baina izoztu zuen nire bihotza,
Irakiten nuen odola ere izoztuz,
Hitz izoztua jabetu zen nire buruan,

H

E

R

I

O

T

Z

A

Olatu izoztu batek eraman zintuen,
Zure goxotasuna, samurtasuna, berotasuna izoztu,
Eta nire oroimen landugabeen errotu zituen bere sustrai
pozoitsuak.
Izoztu zituen momentu beroak,

Izoztu zituen momentu hotzak.

Izoztuta dago zure irudia,

Izoztuta zure begiak,

Zure bihotza,

Eskuak,

Izoztuta zure bizitza.

Hitz izoztua biraka,

Heriotza,

Heriotza,

Heriotza,

Nigan zegoen zure sua itzali zuen urak,

Nola urtu orain barneko amildegia izoztua?

Malko izoztuak,

Begi izoztuetatik.

Garrasi izoztuak,

Eztarri izoztutik,

Laztan izoztuak,

Esku izoztuetatik,

Hitz izoztua,

Aho izoztutik.

Zugandik ezagututako su-txinparta xumea,

Orain izoztua, ahaztua.

Nigandik ezagutu zenuen haurtzaroko su-txinparta,

Izoztua, itzalia.

Orain ezagutuko nukeen zure su-txinparta sendoa,

Orain ezagutuko zenukeen nire su-txinparta argitsua,

Galduak dira, ezinezkoak, IZOZTUAK.

Gazitasun gazi-gozoa

Haizea Caminos Ikazuriaga
Gernikako institutua
Gernika

Ez dut zure hatsa
aspaldi nire musuen parez pare
nabaritu.

Ez da zure ahots eztiaren
uhinik nire belarrietaraino heldu.

Neguko haize hotzak
jelatuko ote zituen hizkiok,
edo elurte gogorrek agian?

Itsasoa zenuen arimatzat,
ur sakon eta amaitezin haietara
murgildu zinenean.

Kresal usain artean nahastuz,
olatu bizietan dantzatzuz,
haitz zorrotzei malgutasuna eskainiz,
itsasneskak,

jostalari bezain xarmangarriak,
izartxoak beteriko
gau liluragarrietan

zure erregina bihurtuz...

Itsasoak bereganatu zintuen
behin betiko,
ur nahasiak eta zeru ilunak
bat egin zuten aldi hartan.

Itsasoak dir-dir egiten du,
ilargia bere uhinetan
zabuka aritzean.

Haizeak, hareharriak
arnasa sakon batez soilik
harrotzen ditu.

Hondarrak estuki besarkatu nau,
nire azaleko preso bihurtu da,
ez du askatasunaren giltza
beregianatu nahi.

Muturreko faro zaharra
da arrantza untzien
lagunik leialena.

Marinel borrokalarien
neke andana
gidatzen du kaialdera,
gazitasunaren
gazi-gozoek,
etxekoen besarkada beroek,
irribarre samurrek,
begirada apalek,
xahutuko duten itxaropenez.

Ezinezkoa egin zitzaidan ordea,
erraietaraino sartua zenuen
gazitasuna kanporatzea.
Ezinezkoa suertatu zitzaidan
kristalezko haitzen
arantza eztenkatuak
odola zurrupatu aurretik
ateratzea,
uhinek lapurtutako gaztetasuna
berreskuratzea...
Ezinezkoa zu zeu
itsasoaren besoetatik
esnaraztea.

Malkoak masailetan behera
labaindu zaizkit,
barrenak hustu ditut
gazitasun guztiak askatuz,
arrokak
nire malkoen sakontasunean
hondoratu dira,
zu nire negarren uholdeetan
ito zaitut
hondarrik gabeko hondartzan.

Itsasoak izugarrizko handitasuna
lortu du,
distira berezia
irabaziz,
bateragarritasun banaezina
osatuz.
Zu eta ni
itsasoak eta zeruak
bat egin zuten gau hartan
gazitasun gazi-gozo bihurtzean.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Gerra beti da oinaze

Oier Zurutuza Arin
Loinazpe insitutua
Beasain

I. Nire burua sendatu bedi
malko gaziz blai ditut bi begi
gerra zikinak dena kendu dit
agian ez da gehiegi
agian ez da gehiegi.
Eritasunean eri
usorik ez da ageri
guztia zaie zilegi
bake garbizko ur gardenetan
egin nahi nuke igeri
bonba artean ezin baitzaio
itxaropenari segi.

II. Lugorri dauden zelai hautsiak
suak jan ditu uzta guztiak
nire zainetan pairatu ditut
gerraren gozo gaziak
gerraren gozo gaziak.
Hain argi eta garbiak
sentitzen ditut auziak
oinazezko intziriak
ugari dira haur umezurtzak
hautsitako familiak
bihotz barnean entzun ditzaket
herriaren garrasiak.

III. Bihotz arimaz nahiz hau gorrota
galdu genuen barne borroka
zelaiak gorriz tindatu dira
odola dabil borboroka
odola dabil borboroka.
Atzetik dugu saltoka
oinazezko txilioka
heriotza ate joka
aurreratzeko gogorik ez dut
nahiz ta atzera ez bota
hau bezalako sufrimendurik
ez diot inori opa.

IV. Goseak hiltzen dago artzantza
jan ezak erre egin du gantza
bihotz barnean sarturik dauka
ezin ilkizko arantza
ezin ilkizko arantza.
Ez da ez inongo txantxa
guda armen tiro dantza
bakea preso da antza
eskuetatik joana zaigu
sarraski honen norantza
inork ezin du menpean hartu
heriotzaren balantza.

V. Amaitu ziren nire kemenak
amaitu ziren mutil lerdanak
gerrak guztiak utzi baititu
itsuak edo herrenak
itsuak edo herrenak.

Onik atera direnak
kanpoan daude gehienak
gure herriko azkenak,
haize berriek gozatu arren
ezinezko hasperenak
ez dira inoiz desagertuko
ildotu zaizkigun penak.

VI. Krispatutzear dut osasuna
erdiz moztuta daukat belauna
sufriaren anticlimax-ak
galdu du askatasuna
galdu du askatasuna.
Hipokresia jarduna
jada ez dago hiztuna
dena hain dago urruna,
desagertu da munduarekin
geneukan anaitasuna
geografiaz mozten da gure
saminaren oihartzuna.

VII. Ikusiz nire gorputz zaharra
hain da okerra, hain da baldarra
nire begiei tinko darie
samina eta negarra
samina eta negarra.
Bihotzean nuen garra
eta gudaren beharra
ase dira ttirri-ttarra,
burua laino artean daukat
ez dut aurkitzen iparra
ez da ederra bake egarria
odolez ito beharra.

VIII. Gerra ostean dator laiotza
ez da guztia izan zorrotza
ez dut aspaldi gehiegi entzun
umeen algara hotsa
umeen algara hotsa.
Urturik barne izotza
batera behar da goza
bake garaien jaiotza,
itzal gorridun ortzadarrari
kendu behar zaio hotza
amets ederrek berriro alai
dezaten gure bihotza.

Bihar arte, laztana

Goiatz Bilbao Bueno
Kirikiño ikastola
Bilbao

Gauari jarraiki dator egunsentia,
isiltasunaren okerbidezik noraezean,
zabalduz doa eguna
gelako argizpi gardenak lausoz.

Isiltasuna bakardadearen errudun.
Errealitate gordinari iheskor,
ilusio distiratsuari jarraiki doan ameslariak
ez du pairatuko krudelkeria,
mingostasuna, garraztasuna, atsekabea.

Begia zabalik, baina itsu.
Ibilki, baina geldi,
entzule eta noizean behin gor.
Berritsu eta mutu,
arnasa hartuz,
eta jadanik itota mundu honetan.

Bizigaririk ez dugunean
halaxe bizi gara,
ameskerian, faltsukerian
asmatzaileen munduan,
irudimenezko ipuinetan,
alegiatzko gertaeretan.

Hostorik gabeko zuhaitzak ikusten ditut,
urdintasunik gabeko zeruak,
bedarrik gabeko zelaiak.
Denak merezi al du horrela jarraitzea?

Irudimenarekin dantzan,
zuhaitzari lekedaz erantsiko dizkiot hostoak,
pintzel batez margotuko dut zerua,
euriaz landatuko dut bedarra,
zure ezak sortarazten didan oinazea ahazteko.

Esaidazu, laztana,
zer esan behar diot gaur gauean
ohe azpian gordetzen dudan nire bihotzari?
Zugatik egingo du galde, eta berriro ere
ez diot esan nahi ez zaitudala ikusi,
ez naizela zurekin egon,
eta egia esanda ez dakidala
maitte nauzunentz.

Esango diot musu bat eman zenidala beretzako,
eta kutxatxo batean sartzen ahalegindu nintzela.
Baina hain handia zen zure musua,
non ezin izan nuen kutxatxoan gorde.

Eta...

papertxo baten hizkiak preso gelditzen diren bezalaxe,
neu ahalegindu nintzen zure musua
papertxo batean atxilotzen,
baina hain zen askea zure musua
hegaka aldendu zela papertxotik.

Ea bihar lortzen dudan errealitatea bizi izatea.

Zurekin ez nagoenean,
euriaz, lekedaz eta pintzelez, margotu behar dut eguna,
zeu baitzara laztana,
zeu zara mundu honetara
lotzen nauen gauza bakarra.

Gaurkoz banoa lotara,
hainbeste maitte eta gorrotatzen dudan
ametsen mundu horretara,
gurekin hain gaiztoa den distantzia birrintzera,
neu naizen itsasoa,
zeu zaren ilargiarekin topo egitera.

Telefonoz bidaltzen dizkidazun musuak,
Nire ezpain umeletan pausatzera,
Deskribatzen dituzun besarkadak,
Goxotasun handienarekin zurekin bat egitera.

Gabon, musu bat, laztana,
eta bihar arte.

Mundua

Miren Beramendi Brit
Hurtzaro ikastola
Oiartzun

Tristura sentitzen dut
zu horrela ikusten zaitudanean.

Zure begirada samurak
gerrak, hilketak eta malkoak
islatzen dituenean
eta dena boterearengatik.

Tristura da momentu honetan,
maiztasun handiz
sentitzen den sentimendua.

Sahats baten itzala
usaindu nahi dut
eguzki galdatan
eta zure gerizpea
gozatu nahi dut.

Bozkarioa da
egun eguzkitsu bateko
zeru garbia eta leuna.

Ni hegan,
gorantz eta beherantz
hegalak banitu bezala
uso zuriaren zain.

Usoak habiatik
ihes egin behar du
ahapeka,

ikurrin aske baten ildoan,
ortzian.

Argia behar dugu
eta ez iluntasuna,
itsasoa behar dugu
eta ez desertua,
bizia behar dugu
eta ez hilketak.

Zuk duzun freskurarekin
nolatan lehorketa hau.

Zure jaiotzaren egoera lortzea
putzuan murgiltzea bada,
egun osoa igeri egiten pasako nuke,
zure jolas egunak
menperatu arte.

Nire bihotza,
hodei beltzez estaltzen ari da
eta lorea

jada zimeldu da.

Malkoak isuriz
ilunean isilik,
arrazoi guztiak
egokitu nahian.

Benetan horrela da

zure etorkizuna,
arrano bat bailitzan
aurrean daukadana.

Mendian gora
etorkizuna ezagutu nahian
nekea, izerdia
dena isurian
irabazi nahian.

Zure iluntasuna desagertzeko
egin dezakedan gauza bakarra,
boterea desagertzea.

Ez naiz ezer

Leire Jauregi Aizpurua
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Zure izpi luze distiratsuekin
esnatzen nauzunez egunero,
maite zaitut.

Zure berotasunak
negu gorrietan ere berotzen nauenez,
maite zaitut.

Zure ondoan jaio izanagatik,
zure ondoan hil izanagatik,
maite zaitut.

Zu hiltzen,
itzaltzen zarenean,
ez dago espazio infinituan bizirik irtengo den izaki
bizidunik,
ez dago inor gogorraziko zaituenik.
Ez,
ez dago.

Ez dut pentsatu nahi
izpirik gabeko egunean,
ez dut pentsatu nahi
berotasunik gabeko negu gorrian.

Ez,
ez dut pentsatu nahi.

Munduaren jainko zarelako,
bihotzak alaitzen dituzulako,
hurrei parkean jolasteko aukera ematen diezulako,
maite zaitut.

Gauetan niri argia emanaz,
eta nik gizakiei,
hauek, lehen maitasunaren antzera,
maitemindurik geratzen direlako,
maite zaitut.

Zure aldamenara joaten naizenean,
beldurrik gabe hitz egiten dizudalako,
konfiantza ematen didazulako,
maitatzen nauzulako,
maite zaitut.

Eta ez dakit nola eskertu
nigatik egin duzuna,
zu zeu zarelako nire maitale,
zu zeu esnatu nauen taupada itsua,
maitasun haren sua,
zu izpien sorleku,
zu argiaren jaiotza.
Nire izatearen arrazoia,
gizakien biziaren beharra,
izaki bizidunen bizia,
zu zeu zarelako munduaren bizi-tza.

Zeren,
nik,
nola adieraziko dizut zurekiko maitasuna?

Nola?

Zer egin ez dakiela

Olatz Telletxea Agirre
Aita Manuel Larramendi ikastola
Andoain

Lau horma ilunen artean,
leihotik kanpora begira
zer egin ez dakiela.
Bi bitxi sakonak
bustirik aurkitzen dira
eta bitartean
bihotzean gorrotoa,
etsipena, samina.

Denbora etengabe doa aurrera.
Asier galdurik dago,
garrasi egiteko gogoia
etorri zaio kobazulo beltzera.
Bitartean, denbora aurrera.
Kapitainik gabeko itsasontzia
nola gidatu portura?
Hiru hankako mahaia bezala,
desorekatua eta galdua
lore liraina bere alboan ez duela.
Denbora aurrera.

Ezinegona zirrikitu
guztietatik barreiatzen da,
zigarro kearen antzera.

Deiane da honen guztiaren arrazoia.
Lau urtaro elkarrekin, lipar
bakoitzean elkar ezagutzen,
muxu gozoen artean
mundua desafiatzen.

Sutan dagoen bihotzak
kale hotzera bultzatzen du.
Nora? Zertara?
Ez da erantzunik egon,
oin hotsak bakarrik.
Iluntasunak ez ditu
begiak beldurtu,
inoiz baino argiago dago dena.
Ez ikararik, sentimendurik,
pentsatzeko betarik...
Oin hotsak bakarrik.

Eskuak gogor kolpatzen du harresia,
erantzunaren bila.
Zabaldu eta argi zuri batek
begiak itsutzen ditu.
“Aurrera”, txoriaren kantuak.
Mila galdera eta erantzun,

denak batera,
Asierren bihotzera.

Bahituta ikusten du bere burua,
kartzela batean.

Zama gehiegi da,
pisutsua, astuna eta
neketsua.

“Zer egin orain? Bihotzak
baietz eta leku goxo
hartara eraman ninduenak ezetz”.
Bidegurutze latz eta gordina,
zer egin ez dakiela.

Galdutako guztia gehiegi
da berarentzat,
baina amore hitzak ez
du lekurik bere buruan.
Hitzek dute ahalmena
galdutako ardia
artaldera berriz ekartzeko

“Gu elkarrekin hasi ginaden
egunaz gogoratzean,

izarrenpean gure gorputzak
gorputz batean batzean,
hitzik gabeko une ixilak
utzi ditzagun atzean,
zure bihotza hartzean,
maitekiro gozatzean;
ez nazazun ahaztu gutun txiki hau
hartzen duzun bakoitzean,
ta nire barne argia bedi
piztu zure bihotzean”.

URRUZUNOTARRAK

1986 - 2002

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	115	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	81	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	19	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotoaren mendekua	2000	27	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	19	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	65	Prosa
Alberdi Estibaritz	Antton	Ez dut ezer ulertzen	2002	75	Prosa
Aldabaldetrekue Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmeale	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	193	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	137	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedeen isila	1989	171	Poesia
Arbelaitz Lekuona	Usua	Helmugara iristea, hori da kontua	2000	77	Prosa
Arozena Velez	Maite	Aita, zer gertatzen zaio munduari?	2001	73	Prosa
Arratibel Galartza	Enara	Begi diztiratsuak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	169	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Amets gaiztoetatik ihesi	1999	175	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sentimentuetan galdurik	2000	177	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Aingeruen negarra	2000	183	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Argi amatatuetan itzal bat	2001	159	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Arregi Izagirre	Odei	Bizitzaren drogak	2001	165	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sagar bihotzak sagar begietan	2002	107	Poesia
Arregi Lopez	Ane	Zuk uste ametsak bete daitezkeela?	2002	83	Prosa
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arriolabengoa Bengoa	Nagore	Hesiak gaintitzen	2001	211	Poesia
Arrizabalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Arruti	Iñaki	Amaierarik gabeko gutuna	2001	47	Prosa
Arruti Arruti	Iñaki	Balbea errekek bere bidea darrai	2001	61	Prosa
Arruti Errazkin	Idoia	Ametsen Bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllón Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malkoak ez badira?	1997	163	Poesia
Azipiolea Martikorena	Maialen	Zerua negarrez denean	1999	19	Prosa
Azkarate Egaña	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Azurmendi Lasa	Ane	Zaharrak berri	2000	83	Prosa
Babiano Lpz de Sabando	Mikel	Oroitzapenak	2001	105	Prosa
Barbantxo Galdos	Iñigo	Soinu izoztuak	1999	123	Poesia
Baroja Arrue	Miguel M ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Baztarrika Otegi	Unai	Etenaren trilogia	2000	157	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Benavides Otsoa-Aizpurua	Jokin	Oroitzapenen garra	2002	91	Prosa
Bengoia Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorkizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Atzera begira	1997	199	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Amaraun Anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Beramendi Brit	Miren	Mundua	2002	135	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bilbao Bueno	Goiatz	Bihar arte laztana	2002	149	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Caminos Ikazuriaga	Haizea	Gazitasun gazi-gozoa	2002	135	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
De Miguel Arnaiz	Olatz	Amaren Heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnaol Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Garraisi mutuak	2000	149	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Egun arrunt bat gehiago	2001	53	Prosa
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau Hotza Eta Lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estevez Fernandez	Monica	The beautiful life of the drugs; very-very beautiful life...	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren Bidea, Amaierarik Gabeko Kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxabe Iruretagoiena	Nagore	Bizitzaren mandamentuak	2001	171	Poesia
Etxaniz Iraola	Ainitze	Ametsa egi	2000	43	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Etxezarreta Etxarri	Enekoitz	Nire baitakoa zara	1999	159	Poesia
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Fernandez Jauregi	Ander	Bakardadearen miseria	1999	53	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Maite Bengoetxea begira zegoen	2000	61	Prosa
Franko Sudupe	Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
Garcia Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
García Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei Puntako Izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren Kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Laztana	1999	37	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Izarren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munarriz	Jorge	Heriotzak Ez Zekiena	1998	143	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Metro	1999	137	Poesia
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren Ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Asko maite duenak asko sufritzen du	1999	187	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Koloreak, bizitzaren arima	2000	167	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Zabaleta	Idoia	Björkeport maldizioa	1999	101	Prosa
Goitia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
Gonzalez Montero	Claudia	Betiko maitasuna	2000	107	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko Bluesik Ederrena	1998	69	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Baserritik	1999	29	Prosa
Gorrotxategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Gurrutxaga Zubimendi	Iñaki	Espaloia	1999	43	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jaka Irizar	Oihane	Itsasoratutako malkoak. Hitz izoztua	2002	127	Poesia
Jauregi Aizpurua	Leire	Ez naiz ezer	2002	161	Poesia
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagalduek deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Labandibar Arbelaitz	Goiatz	Ipar izarra	2002	49	Prosa
Laka Arozena	Amaia	Zuhaitza	2001	205	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misteriotsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Legarreta Gorroño	Jon Haitz	Gizateriaren urratsak	2001	33	Prosa
Leiaristi Guenaga	Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Lekuona Artola	Eneko	Askatasunaren bila	2001	87	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Lopetegi	Estibaliz	Galdutako denboren zertzeladak	2002	39	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidar	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Lopetegi De la Granja	Ekhi	Garai bateko hondarrezko erloju goibela...	1999	181	Poesia
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Madina Milikua	Txomin	Faroko zoroa	2000	35	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Maiztegi Landa	Haize	Bizitza txuri beltzean	2000	119	Prosa
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko Neska Txikia Eta Hegoak	1998	211	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Kolorezko bideak	1999	131	Poesia
Malagon Zaldua	Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa
Malagon Zaldua	Ana	Beti mugan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Martin Iriondo	Amaia	Txori bati begira	2000	143	Poesia
Martinez Zabalegi	David	Zerurako bide bi	1999	89	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendikute Zulaika	Maitane	Itsu zulora	2000	91	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta «vasco»-a	1991	37	Prosa
Mendizabal Alberdi	Maite	Ilberri gauetan...	2002	97	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Muguruza Sarasua	Lorea	Musika baino pista hoberik non?	1999	73	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muñoa Errasti	Ion	Bizitza amets; eta zu?	2001	199	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olaizola Gabirondo	Kati	Xabi eta Fermin	2001	141	Prosa
Olaizola Gabirondo	Kati	Merituak	2002	29	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Oronoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padron Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Paia Ruiz	Alfredo	Oroitzapenak	1999	145	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek Jakingo Balute	1998	227	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Lau bekatu hilezkor	1999	151	Poesia
Panizo Saiez de Maturana	Amaia	Luis XIII.ari, xake	2000	53	Prosa
Paya Ruiz	Xabier	Agur laztana	2000	131	Poesia
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Quintana Martinez	Paloma	Beste mundua ezagutzen	2001	121	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rementería Larruzea	Jon	Bizitza gogorra da	2002	57	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Rios Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Rubio Iturria	Miren	Azazkalak jan nitueneko bost hondar aleak	2002	113	Poesia
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren Kaiera	1998	19	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Eternitatearen Memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elozegi	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elozegi	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarasua Oliden	Maialen	Azken itsas bidaiia	2001	179	Poesia
Sarobe Txopeitia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sarriugarte Lasarte	Aingeru	Sineskeriaren egutegia	2000	99	Prosa
Sudupe Rodriguez	Maidier	Azken agurra	1995	65	Prosa
Telletxea Agirre	Olatz	Zer egin ez dakiela	2002	167	Poesia
Timoteo Delgado	Ander	Urruneko oroitzapenak	2002	67	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari Kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Ugarteburu Plazaola	Ainhoa	Askatasun taupada	2001	131	Prosa
Uranga Barro	Mikel	Nocte	2002	19	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uriarte Gil	Maite	Noraezean	2000	189	Poesia
Uriarte Gil	Maite	Sua sutan	2001	153	Poesia
Uriarte Gil	Maite	Ihesean	2002	121	Poesia
Urribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horiztatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vives Urbietta	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogo	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare Grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umerez	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zubizarreta Iribekanpos	Oihan	Etsipenezko negarra	2000	197	Poesia
Zubizarreta Iribekanpos	Oihan	Udazkeneko oster	2001	187	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Minbiziari	2001	193	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Gerra beti da oinaze	2002	143	Poesia



PROSA

MIKEL URANGA

KATI OLAIZOLA

ESTIBALIZ LIZASO

GOIATZ LABANDIBAR

JON RERMENTERIA

ANDER TIMOTEO

ANTTON ALBERDI

ANE ARREGI

JOKIN BENAVIDES

MAITE MENDIZABAL

Idazlearen erronka ausarta da; hitzaren arnasa koloretatuarekin, barneko argi printzei inguruko basamortu leho-
rrean bizia ematea alegia.

Sormena da gaitasunaren berezko iturburu sotila. Mendiko
ur gardenen xirripa amultsua edo itsasoko uhin bulartuen
oldar eroa izan daiteke emankortasunari darion isuria;
hotza edo beroa, argia edo iluna, gaiari dagokion neurrian.
Zaletasuna, hurrena, bihotzaren taupada irakina egosten
mantentzen duen suko labe gorria izan ohi da gogoarentzat.
Konfiantza, hari finen arimako sare babeslea, amets gau-
zatuen ingudean norberak landutako nortasunaren aingura
da.

Jose Mari Satrustegi



1008153
Irakaskuntza ertaintetako ~~Urrezko Liburu~~ Lehiaketa 2002



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTS
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 5 €